

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**5315** *19/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituen nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan.*

#### I. Aurrekariak, zioak eta neurriak

COVID-19aren ondorioz egoera epidemiologikoak ekarri duen osasun-krisialdia dela eta, Espainian osasun publikoko hainbat neurriak hartu behar izan dira, harreman sozial, ekonomiko eta produktiboak nahasi dituztenak. Zehazki, nabarmentzekoa da funtsezkoak ez diren jarduerak eteteak eta beste hainbat jarduera mugatzeak behin-behineko langabezia dezente igotzea eta enpresa txiki eta ertainen eta langile autonomoen jarduera jaiste ekarri dutela.

Horregatik, haien ondorioak arintzeko, neurri sorta bat onartu da orain arte, eta orain neurriok errege lege-dekretu honek osatuko ditu, nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan.

#### A. Nekazaritzaren arloko neurriak

Nekazaritzan, oso nabarmena izan da beso nahikorik ez zegoela. Izan ere, urritu dira Espainiako lursailetan nekazaritzako zereginetan jardun ohi diren sasoiariak, dela haien jatorrizko herrialdeetik ateratzeko bidaiak mugatu direlako osasun-arrazoiengatik, dela langile haietako asko pandemiaren bilakaera ikusita neurriak hartzen ari direlako, eta horrek, azkenean, ondorio nabarmena izan dezake Espainiako nekazaritzako ustiategi askoren ekoizpen-ahalmenean eta -baldintzetan. Langile gutxiago izanik, berriz, arriskuan egon daiteke herritarrentzako oraingo janari-hornikuntza, zeina orain arte apartekoa izan den aukeran, kopuruan eta kalitatean.

Egoera horri erantzun egokia emate aldera, nekazaritzan langileen aldi baterako kontratazioa erraztea izan zen apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren xedea, zeinaz presako zenbait neurri hartu baitziren nekazaritzako enpleguaren arloan. Kontratazioa errazteko, enplegua malgutzeko aparteko neurriak ezarri zituen, izaera sozial eta laborekoak, 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera indarrean zegoen bitartean nekazaritzako jarduerari eusteko beharrezkoak zirenak (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaratzeko duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko). 2020ko ekainaren 30era arte aplikatzekoa da 13/2020 Errege Lege Dekretua.

Pandemiaren ondorioek izan duten bilakaerak aukera eman du jarduera mugatzeko zenbait baldintza aldatuz joateko. Nolanahi ere, eutsi zaie elementu faktiko batzuei: araua onartu zenean hor zeuden, ekoizteko baldintzei zuzenean eragiten dieten eta araua onartzea justifikatu zuten horiei. Adibidez, langile haietako askoren jatorrizko herrialdeekiko mugen itxiera; kutsatzeko benetako arriskua, zeinak langileen borondatezko joan-etorrietan eragina duen, eta udako kanpainetarako sasoiakako langileen beharra, udaberriko kanpainetarako gertatzen zen bezala. Orain, beraz, arauan ezarritakoari lehenaz gain beste hiru hilabetez eustea erabaki behar da, udako nekazaritza-lanak egiteko behar beste beso dagoela bermatzeko, elikakatean funtsezko osagaia baita.

Era berean, esan beharra dago errege lege-dekretu horretan hartutako neurriei esker ustiategi askok jarduerari eutsi diotela eta horrek lagundu duela batez ere frutaren sektorean Espainiako zenbait tokitan detektatu den langile falta neurri batean zuzentzen. Hortaz, beharrezkoa da errege lege-dekretua aplikatzeko denbora luzatzea, langile falta hori neurri batean betetzen lagundu dezakeen faktore hori ez galtzeko.

Hala, ikusita komenigarria dela neurriok aplikatzen segitzea, apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretu horren indarraldia irailaren 30era arte luzatzea erabakitzen da errege lege-dekretu honetan.

Halaber, Estatuko Itsas Arrantzaren martxoaren 26ko 3/2001 Legean aldaketa zehatz bat egiten da. Proporzionaltasun-printzipioaren mesedetan, arauzkoa baino tamaina edo pisu txikiagoko moluskuen lehen salmenta arau-hauste arin gisa tipifikatzen da, baldin eta espezie horren guztizko salmenten ehuneko hamar baino txikiagoa bada; izan ere, garrantzi txikiko arau-haustetzat jotzen da, eta neurritz kanpo zigortuko litzateke bestela joz gero, Europako laguntzak galtzea lekarkeelako besteak beste.

## *B. Zientziaren arloko neurriak.*

Europar Batasuna asmo handiko programa bat garatzen ari da fusioa energia-iturri gisa garatzeko, nazioarteko inoiz ez bezalako lankidetzaren bidez, ITER proiektuan; lankidetzaren horretan, Txina, Korea, Ameriketako Estatu Batuak, India, Japonia eta Errusia sartzen dira, funtsezko bazkide gisa.

Fusioko Ekoizpen Elektrikoko Demostrazio Planta (DEMO) eraikitzearen helburua lortzeko Europak egin beharreko urratsetan, bi funtsezkoak dira: Frantziako hegoaldean Tokamak ITER eraikitzea eta hura asmo zientifiko-teknologikoekin ustiatzea, eta garapenerako neutroi-iturri bat eraikitzea, IFMIF-DONES (International Fusion Materials Irradiation Facility-Demo Oriented NEutron Source), etorkizuneko DEMO fusio-erreaktorearen lehen hormako osagaiek izango dituzten muturreko baldintzak jasateko gai diren materialak garatu, kualifikatu eta baimentzeko.

IFMIF-DONES potentzia handiko partikula-azeleragailu bat da, litio likido batean eraginez fusio-erreaktoreetakoak bezalako neutroiak sortzen dituena. IFMIF-DONES eraikitzea ezinbestekoa da fusio nuklearra energia-iturri bideragarria dela frogatzeko Batasunak duen helbururako.

IFMIF-DONESen izaera europarra sendotzeko, proiektua Granadako hirian garatzeko hautagaitza aurkeztu zuen Espainiako Erresumak 2017ko abuztuan, Kroaziaren eta Europako Fusio Programaren babesarekin. Hautagaitza hori bultzatzeko, administrazio arteko lantalde bat eratu dute Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak eta Andaluziako Juntak, eta, horretan, partzuergo bat eratzea proposatu da martxan dagoen hautagaitza-prozesuko jarduerak aurrera eramateko. Prozesu horrek, ziur asko, 2021era arte iraungo du. Hautagaitzak arrakasta izanez gero, partzuergo hori ez da desegingo, eta IFMIF-DONES eraikitzearen sortuko den nazioarteko organismoari Espainiari herrialde anfitrioi gisa ematea dagokion laguntza emateaz arduratuko da. Errege lege-dekretu honen bidez, beraz, baimena ematen da partzuergo hori eratzeke.

Era berean, salbuespenezko erregulazio bat eguneratzen da, genetikoki eraldatutako organismoen arloan aurrez onartua. Kontuan izan behar da ikertzea funtsezkoa dela osasun publikoan ondorioak izan ditzaketen agente infekziosoak, prozesuak edo egoerak –koronabirusaren oraintsuko epidemiarekin sortu dena, adibidez– eragozteko, borrokatzeko edo gelditzeko tresnak bilatzeko orduan. Gainera, kontuan hartuz garrantzitsua dela tresna horiek lehenbailehen izatea eta segurtasun-berme handienekin izatea, hamabi hilabetez luzatu behar da COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuko neurrien norainokoa, haien edukia osasunerako interes berezia duten jarduerak guztietara zabalduz, ikerketaren eta osasunaren alde ematen dituzten aukerak maximizatzen direla ziurtatzeko. Hala, dauden premiak ikusita egiten diren ikerketetarako, informazio publikoaren epea bost egunera jaitsiko da eta izapideak erraztuko dira, efizientzia hobetzeko eta karga administratiboak gutxitzeko.

## *C. Ekonomiaren arloko neurriak.*

Horretaz gainera, atzeratu ezin daitezkeen zenbait neurri ekonomiko gehitzen dira errege lege-dekretu honetan.

Lehenik eta behin, ekonomia suspertzeko neurriak telekomunikazioen sektorera ere ailegatu behar dira, sektore horrek bere lehiakortasun-indar eta merkataritza-dinamismo guztia berreskuratu ahal izan dezan. Izan ere, sektore erabakigarria dela frogatu da etxeko konfinamenduaren eta mugikortasun murriztuaren garaian, eta aukera eman du, besteak beste, osasun-arretako jarduerak urrutitik egiteko, gizarte-zerbitzuak emateko, telelanerako, urrutiko hezkuntzarako, merkataritza elektronikorako, administrazio elektronikorako, bai eta Espainian herritarrei informaziorako eskubidea bermatzeko eta aisialdiko jardueretan aritzeko ere.

8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, presako eta ezohiko hainbat neurri garrantzitsu eta beharrezko hartu ziren, telekomunikazioen arloko neurriak ere bai, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena). Haietako bat 20. artikuluan ezarritakoa da. Artikulu horren bidez, salbuespen gisa eta aldi baterako eten zen abonatuak operadorez aldatzeko eta telefono-zenbakia atxikitzeko erraztasuna, operadorearen agenteen eta abonatuaren arteko interakzioa murrizteko eta osasuna zaintzeko.

Neurri horrek lagundu egin du osasun-krisialdiari eusten, komunikazio elektronikoen zerbitzuak ematen jarraituz eta konektibitatea bermatuz, baina orain, ekonomia pixkanaka suspertzen ari dela, bidezkoa da telekomunikazioen merkatuak berriro erabateko operatibitatea izatea eta berriro baimena ematea abonatuak zenbakia atxikitzeko operadorez aldatzean edo zenbakia eramangarria denean; erabaki bikaina da operadoreak beren artean modu askean lehiatu ahal izateko eta, aldi berean, herritarrek beren hautatzeko gaitasuna indartzeko aukera izan dezaten, zerbitzu merkeagoak, berritzaileagoak, osoagoak, kalitate handiagoak edo beren beharretara egokituak lortzeko.

Eramangarritasunaren eten hori ezabatzearekin batera, aurreko egoera erabat lehiakorrera itzuliz, neurri egokiak hartu behar dira abonatuak aukera izan dezaten alarma-egoeran komunikazio elektronikoen zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu ezin izan dituzten fakturak ordaintzeko, malgutze-tekniken bidez, hala nola komunikazio elektronikoen zerbitzuetan dituzten zorrak zatikatuz eta geroratuz.

Arrazoi horiek direla eta, betebeharrak hau ezartzen zaie komunikazio elektronikoen operadoreei: abonatuak aukera eskaini behar diete alarma-egoera indarrean sartu zenetik 2020ko ekainaren 30era arte kobratzeko igorri diren fakturen zorra zatikatzeko eta geroratzeko. Zorraren zatikatzeak eta geroratzekoak lineala izan behar du geroratzeko hilabeteetan; ordainketa zatikatuak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, non eta abonatuak operadorearekin beren kasa beste epe bat ez duten adostu, luzeagoa edo laburragoa; ezin izango da berandutze-interesik sortu, eta ez da bermerik eskatuko zorra zatitzeko eta geroratzeko.

Bigarrenik, 26/2013 Legea, abenduaren 27koa, Aurrezki Kutxei eta Banku Fundazioei buruzkoa, Finantza Politika Sektorialaren Baldintzei buruzko Akordio Memorandumaren esparruan eta Finantza Laguntzari buruzko Esparru Akordioaren esparruan onartu zen (akordio-memoranduma Bruselan eta Madrilen egin zen, 2012ko uztailaren 23an; esparru-akordioa, berriz, Madrilen eta Luxenburgon egin zen, 2012ko uztailaren 24an). Hona zer ezartzen zuen memorandumak 23. puntuan: «Espainiako agintariek, 2012ko azaroaren amaierarako, aurrezki-kutxek kreditu-erakundeetako akziodun gisa duten funtzioa argitzeko arauak prestatuko dituzte, kutxetan duten partaidetza gehiengorik gabeko maila bateraino murrizteko azken batean».

Ildo horri jarraituz, abenduaren 27ko 26/2013 Lege hori onartu zen. Lege horrek mekanismo bat ezartzen du, zeinaren arabera kreditu-erakunde batean kontrol-partaidetza duten lehengo kutxek, orain banku-fundazio bihurturik, erreserba-funts bat hornitu behar zuten ezustekoei aurre egiteko, baldin eta desinbertsio-plan baten bidez partaidetza murrizten ez bazuten kontrol-mailen azpitik.

Urriaren 2ko 877/2015 Errege Dekretuak zenbait banku-fundaziok eratu behar duten erreserba-funtsa arautzen du. Arau horretan, erreserba-funtsa eratzeko zenbatekoa, modua, epea eta erritmoa ezartzen dira.

6. artikulua araberan, zortzi urtekoa da erreserba-funtsa eratzeko epea, eta Espainiako Bankuak beste urtebetez luzatu ahal izango du, baldin eta banku-fundazioak zailtasunak baditu epea betetzeko partaidetzapeko kreditu-erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioaren bilakaeraren edo merkatuen baldintzen garapenaren ondorioz. Bestalde, artikulua horren hirugarren apartatuari jarraituz, funtsa, arau orokor gisa, erritmo lineal batean zuzkitzekoa da denboran.

Europako Banku Zentralaren 2020ko martxoaren 27ko Gomendioaren bidez (COVID-19aren pandemiaren zehar dibidenduak banatzeari buruzkoa eta EBZ/2020/1 Gomendia indargabetzen duena), Europako banku-ikuskatzaileak gomendatzen du kreditu-erakundeek ez dezatela dibidendurik banatu edo dibidenduak banatzeko konpromiso ezeztazetik hartu behintzat 2020ko urriaren 1era arte 2019ko eta 2020ko ekitaldiei dagokienez.

Hori dela eta, eta jasotzen dituzten dibidenduak izanik banku-fundazioek duten diru-iturri nagusia, egokia da erreserba-funtsa hornitzeko betebeharra etetea 2020an, eta funtsa eratzeko epearen zenbaketa gelditzea, eta, beraz, zuzkidurak 2021-2024ko aldira atzeratzea.

Neurri hori azken xedapen batean onartzen da. Haren bidez, urriaren 2ko 877/2015 Errege Dekretuari xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, eten hori jasotzen duena, eta azken xedapen bat gehitzen zaio, xedapenaren erregelamendu-maila babesteko, eta, horrela, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeke.

Hirugarrenik, COVID-19aren pandemiak ekarri duen osasun-larrialdia ondorio ekonomiko handiak izaten ari da, eta eragina izaten ari da ekoizpen-jardueran, eskarian eta herritarren ongizatean. Hori Europar Batasuneko herrialdeetako ekonomietara ezohiko abiaduran zabaltzen ari da. Ekoizpen-jarduera aldi baterako eten da, hornidura-kateei eragin zaie eta kontsumoa eta Europako eragile ekonomikoen konfiantza nabarmen jaitsi dira. Europar Batasuneko ekonomien susperraldia ez da berehalakoa edo automatikoa izango. Europar Batasunak shock simetrikoki egin behar dio aurre, eta horrek ekonomia errealarari eta ekoizpen-sareari eragiten die Europako ekonomia guztietan; beraz, beharrezkoa da erantzun koordinatu eta sendo bat ematea, herrialdeak hartzen ari diren neurri nazionalak osatzeko.

Egoera horri aurre egiteko, Europar Batasunaren esparruan hainbat neurri hartzen eta programa eratzen ari dira enpresa-sareari eta estatu kideen finantzaketari laguntzeko. Hala, Eurotaldeak, 2020ko apirilaren 9ko bileran, babesa eman zion Larrialdietako Langabezia Arriskuak Arintzeko Europako Aldi Baterako Laguntza Tresna (edo SURE tresna) ezartzeko Europako Batzordeak egindako proposamenari; 100.000 milioi euro jarriko lirake gehienez horretan, eta horietatik 25.000 milioi estatu kideen abala izango lukete.

Geroago, Kontseilu Europarraren 2020ko apirilaren 23ko bileran, estatuburuek eta gobernuburuek tresnaren sorrera berretsi zuten, eta 2020ko ekainaren 1erako martxan egotea eskatu zuten.

Kontseiluaren 2020/672 (EB) Erregelamenduak arautzen ditu haren sorrera eta ezaugarriak (Kontseiluaren 2020/672 [EB] Erregelamendua, 2020ko maiatzaren 19koa, COVID-19aren agerraldiaren ondorioz larrialdi batean langabezia-arriskuak arintzeko Europako aldi baterako laguntza-tresna bat [SURE] sortzeari buruzkoa), COVID-19aren ondorioz zailtasun ekonomiko larriak izaten ari diren estatu kideei finantza-laguntza emateko helburu horrekin, eta besteren konturako langileak eta autonomoak babesteko eta langabeziaren eragina eta diru-sarreraren galeraren eragina murrizteko asmoz. Eskatzen duten estatu kideei maileguak ematea izango da finantza-laguntza, enplegua babesteko neurriak finantza ditzaten (hala nola aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak Espainiaren kasuan). Estatuak, horrela, Europako Batzordeak interes-tasa murriztueta emandako finantzaketaren onura jaso ahal izango du, eta, horri esker, kapital-merkatuetara gutxiago jo beharko du eta beraren finantzaketa-baldintzak hobetuko dira, eta horrekin interesetan aurrezteko espero da. Bestalde, estatu kideek tresna horri laguntzen diote, tresna horrekin Europar Batasunaren aurrekontuak bere gain hartutako arriskuaren zati bat

bermatuz, abalak emanez, Europako Batzordearen eta estatu kideen artean adostutako baldintzen arabera.

Beraz, estatu kideek Europar Batasuneko Errenta Nazional Gordinean duten pisuaren arabera kasu bakoitzean dagozkien abalak onartu behar dituzte, bakoitzak bere arau-esparruarekin bat etorriz, tresna herrialde guztiek abalak emanda ekainean erabilgarri egon dadin.

Espainiako Erresumak ekimen horretan ekarpena egiteak abal ezeztazina, baldintzarik gabeta eta lehen eskariaren arabera ematea dakar.

Errege lege-dekretu honek, testuinguru horretan, eman beharreko abalak baimentzeari buruzko xedapenak jasotzen ditu; Espainiak COVID-19aren krisiari erantzuteko Europako esparruan parte hartzea dakar berekin, eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroa gaitzen du Europako Batzordearekin dagozkion akordioak sina ditzan, Gobernuak hartutako neurri nazionalak osatuko dituztenak.

Ekimenak gaur egungo egoeran duen garrantzia eta berehala martxan jartzeko beharra direla eta, errege lege-dekretu hau onartzen da.

Bestalde, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 29. artikuluan xedatutakoa osatzen da, enpresak eta autonomoak finantzatzeko 100.000 milioi euroko Estatuaren abalen programa nazionalari aurrekontu-estaldura emanez; programa hori martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartu da. Programa oso handia denez, erabakigarria da aurrekontu-mekanismoak gaituta edukitzea, programaren kaudimena bermatzeko ikuspuntu finantzario eta operatibotik.

Laugarrenik, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, luzamenduetarako legezko araubide bat eman zuen 7. artikulutik 17. artikulura, ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duten maileguen zordunentzat. Handik egun gutxira, ohiko etxebizitzarako higiezinarekin bermatutako zorretatik harago hedatu zen luzamendu-araubide hori, eta enpresaburuen eta profesionalen jarduera ekonomikorako erabiltzen diren higiezinekin bermatutako mailegu edo kredituak ere estali zituen, baita alokairurako etxebizitzak eskuratzeko mailegu edo kredituak ere.

Hipoteka-kredituen luzamenduetarekin batera, edozein pertsona fisikok –izan kontsumitzaile gisa, izan bere jarduera profesionalean– hipoteka-bermerik gabe hitzartutako edozein finantzaketa-motatarako ere onartu zuen luzamendu bat Gobernuak, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikulutik 27.era xedatutakoari jarraituz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

Ikuspegi objektibotik, bi luzamendu-mota horiek (hipotekazkoa eta hipotekarik gabekoa) honetan dira berdinak funtsean: ordaintzeko betebeharrak aldi baterako eteten direla eta interesik ez dela sortzen luzamenduak irauten duen bitartean (hiru hilabete dira eskatzen denetik). Ikuspegi subjektibo batetik, elementu komuna hau da: legez ezarritako bi luzamendu horiek egoera ekonomiko ahulean dauden pertsona fisikoentzat bakarrik direla. Ez ziren edozein pertsonaren berandutzearen ondorioak arintzeko eta guztiontzako neurri gisa sortu, baizik eta egoera ekonomiko ahulean daudenei berehala erantzuteko mekanismo gisa. Legezko luzamendua martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan berariaz adierazitako kalteberatasun-egoeretan daudenentzat da bakarrik.

Kredituen eta maileguen ordainketak geroratzeko neurriak eta akordioak aplikatzen laguntzeko, legezko luzamenduetan hasieran aurreikusitakoa baino irismen zabalagoarekin eta horien osagarri gisa, errege lege-dekretu honek araubide berezi bat ezartzen du mailegu-emaitzen eta haien bezeroen artean lortutako luzamendu-akordioetarako. Zorra geroratzeko akordio horien irismen subjektiboa zenbat eta handiagoa izan, zenbat eta pertsona gehiagori mesede egin, orduan eta txikiagoa izango da pandemiak berehala izango duen eragin ekonomikoa.

Europar Batasunaren esparruan, Europako Banku Agintaritzak pandemiaren eragin ekonomikoa mugatzeko neurriak hartzea sustatu du, eta, bereziki, geroratzeak eta luzamenduak zabaltzea, estatu kide bakoitzean erakundeen elkarrekin sustatutako



akordioetatik abiatuta, eta, zehazki, akordio horiei atxikitako eragiketei zentzuzko kontabilitate-tratamendu zuhur eta mesedegarria aplikatuz (EBA GL 2020/02 gida). Gida hori Espainiako Bankuaren Batzorde Betearazleak 2020ko maiatzaren 19an hartutako erabakiaren bidez onartu da eremu nazionalan.

Errege lege-dekretu honetan aurreikusitako luzamendu-araubide bereziak, zorrak geroratzearen onuradunen kolektiboa handitu eta ekonomia aldetik kalteberak diren onuradun horietatik harago zabaltzeaz gain, azken horiei aukera ematen die geroratzea luzatzeko legezko luzamenduaren iraunaldia amaitutakoan.

Araubide horretatik abiatuta, hiru luzamendu-mota genituzke. Lehenengoa lege-aginduz egiten dena da, eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.3, 14 eta 15. artikuluen (hipotekazko luzamendua) eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2 eta 25. artikuluen (hipotekarik gabeko luzamendua) aurreikuspenen ondorioak eragiten ditu mailegu-kontratuan. Kasu horretan, «legezko luzamendua» esaten diogun horretan gaude.

Bigarren luzamendu-mota alderdiek hitzartutakoa da, mailegu-emaeleek beren ordezkartza-elkarteen bidez sinatutako sektoreko akordioetan jasotakoari heltzen diona. Errege lege-dekretu honek luzamendu horiek zenbait ondorioarekin uztartzen ditu, horiek emateko izapideak arintzeko eta mailegu-hartzaileen artean ondorioak azkar zabaltzen saiatzeko premian oinarrituta. Akordio sektorial batean babestutako luzamendu hitzartu horiek 6. artikulutik 8. artikulura eta lehenengo xedapen iragankorrean arautzen dira.

Hirugarren luzamendu-mota alderdiek Kode Zibilaren 1.255. artikuluko itun-askatasunaren printzipioaren babesean erabakitakoak dira, eta ez zaie aplikatuko 6. artikulutik 8.era eta lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoa. Hala ere, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan zehaztutako egoera ekonomiko ahulean dauden zordunekin formalizatzen direnetan (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko), lege aurreikusitako iraupen-baldintzak, berehalako eragina izateko baldintza eta interesik ez sortzeko baldintza aplikatuko dira, eta erregistroko eta notarioko ordainsarien hobaria jasoko dute, eta egintza juridiko dokumentatuen kuota mailakatutik salbuetsita egongo dira.

Errege lege-dekretu honetan bigarren luzamendu-motaren araubide berezia ezartzen da, esparru-akordio sektorial bati atxikitakoa eta hitzarmenezkoa. Mota horretako luzamenduak, errege lege-dekretu honetan jasotako neurri bereziei heldu ahal izateko, errege lege-dekretu honetan ezarritako mugen eta baldintzen barruan errenditu behar dira nahitaez, hitzartzen diren gainerako luzamenduetan ezin aplika daitekeen eskubide eta betebeharrak espezifikoen eta desberdinen esparru batean. Araubidea hiru artikuluren, xedapen iragankor baten, azken xedapen baten eta xedapen indargabetzaile baten inguruan dago egituratuta.

6. artikulua errege lege-dekretu honen araubidea aplikatzen zaien luzamendu-akordioek izan behar duten sektore-esparrua ezartzen du. Zehazki, entitateek adierazi behar dute esparru-akordioarekin bat egiten dutela, eta Espainiako Bankuari jakinarazi.

Araubide berezi hori aplikatzen duten entitateek emandako luzamenduei buruzko datu espezifikoak jakinarazteko betebeharra ere ezartzen da, eta, aldi berean, hemen araututako luzamendu horri buruzko manuen antolamendu- eta diziplina-arau izaera ezartzen da, eta horrek aukera emango dio Espainiako Bankuari horiek betetzen diren ala ez kontrolatzeko.

Hurrengo artikulua, berriz, aurreko artikuluan aipatutako esparru-akordio sektorialari atxikitako luzamenduek jarraitu beharreko araubidea ezartzen du, bai eta luzamendu horiek izan beharko dituzten mugak ere. Geroratu ondoren mailegu-kontratuaren doikuntza artikulatzeko modua da muga horietako bat, hau da, edo kuota birbanatuko dira eta mailegu-kontratuan hitzartutako epeari eutsi, edo epemuga luzatuko da.

Beste mugetako bat hau da: debekatuta dago luzamendua aplikatuko zaion mailegu-kontratuan agertzen ez diren baldintzak ezartzeko erabiltzea luzamendu-akordioa, hala nola produktu berriak merkaturatzea eta beste berme batzuk eskatzea.

Hala ere, beharrezkoa da aldeak ados jartzea ordaintzeko betebeharra betetzearekin lotutako aseguru-kontratu jakin batzuei nola eutsi behar zaien zehazteko, zeinek, atxikiz

gero, mesede egiten baitiete mailegu-emaleari eta mailegu-hartzaileari, aseguru-kontratu horiekin kredituaren kalitatea galtzen ez den neurrian eta, aldi berean, zordunari kontratua behar bezala betetzea eragotz dezaketen gorabeherak estaltzeko aukera ematen dioten neurrian. Hala ezartzen du 7. artikulua 2. apartatuak. Kostuak handitzea, horregatik, salbuespen bat da artikulua bereko 3. apartatuan jasotako zentzuan gastuak handitzeko debeku orokorraren barruan, bai eta interesik gabeko mailegu-eragiketei ematen zaien komisioak kobartzeko aukera ere; kasu horietan luzamenduak eragiten duen errentagarritasun-galera soilik konpentsatzeko salbuespen bat da, gainerako eragiketetik berdintasunean kokatu ahal izateko, eta luzamenduak emateko orduan atzeratzeko motiborik ez izateko. Eragiketa horiei eragiten dieten luzamenduak, oro har, epe laburreko kontsumorako maileguekin lotutakoak dira.

Manu horren alderdi garrantzitsu bat zera da: legezko luzamendua eta esparru-akordio sektorial baten babesean izenpetutako hitzarmenezko luzamendua nola koordinatu biak mailegu berean gertatzen direnean. Egoera horretarako, ezartzen da legezko luzamendua amaitu ondoren gertatuko direla hitzarmenezko luzamenduaren ondorioak, eta, horrela, une oro bermatuko dira legezko luzamenduaren lehentasuna eta ondorioak. Bestela esanda, esparru-akordio sektorial baten babesean sinatutako hitzarmenezko luzamendu baten onuradun den zorduna gainera legezko luzamenduaren onuradun baldin bada martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitako egoera ekonomiko ahulean dagoelako, luzamendu baten eta bestearen baldintzak hurrenez hurren aplikatuko dira, halako eran non lege-testu horren 14. artikuluan jarritako hiru hilabeteko epean ez baita ez interes arruntik eta ez berandutze-interesik sortuko.

Joan-etorriei jarritako mugak errege lege-dekretu honen ondorioak proiektatzen diren abagunearen ezaugarrietako bat dira, alarma-egoera deklaratzeko arauetan agertzen diren bezala. Muga horiek direla eta, komeni da (i) kanal telematikoen erabilera sustatzea, orain arte nagusi izan direnen osagarri gisa, batetik, eta (ii) luzamendu-akordioa prestatzeko eta onartzeko bidean egin beharreko izapideak arintzea, bestetik.

Lehenengo gaiari dagokionez, 6. eta 7. apartatuek informazioa igortzea eta jasotzea errazten dute, bai eta baimena lortzea ere, aurrez aurrekoa ez diren kanal gehigarrien bidez, agindu honetan ezartzen den bezala. Izapideen murrizketari dagokionez, 9. apartatuak salbuetsi egiten du Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen (aurrerantzean, HKKL) eta Kontsumorako Kreditu Kontratuak buruzko ekainaren 24ko 16/2011 Legearen (aurrerantzean, KKKL) artikulua jakin batzuk aplikatzea, oinarritzat hartuta beharra dagoela araubide bideragarri eta bateragarri bat ezartzeko salbuespeneko egoera batzuetan, hau da, luzamenduak masiboki sinatu behar diren mugikortasun mugatuko egoera fisiko batzuetan.

Hala ere, zordunari akordioa ulertzeko moduko informazioa ematea da 5. eta 6. apartatuetan ezartzen den araubide bereziaren eskakizunetako bat. Horretarako, mailegua emandako entitateak zordunari behar besteko informazioa helarazi behar dio geroratzearen ondorio juridiko eta ekonomikoei buruz, dena delako maileguaren epea luzatuta edo luzatu gabe. Informazio hori, hain zuzen ere, higiezin-kredituen kontratazioaren esparruan oro har ezarritakoa (EINF Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa izenekoa) baino laburragoa da, baina funtsezkoa da, zordunak luzamenduaren irismena eta ondorioak ulertzen dituela ziurtatzen duena, beharrezko mekanismoa baita baimena behar bezala emateko eta luzamendua onartzeko. Harekin batera, hitzarmenezko luzamenduak irauten duen bitartean aseguruaren hedadurari buruzko informazioa ematea aurreikusten du arauak, hala badagokio.

Araubide horrek segurtasun juridikoa indartu nahi du testuinguru berri honetan, eta kontsumitzailea babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 4ko 2014/17/EB Zuzentarauan ezarritako estandarrak bete nahi ditu (2014/17/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 4koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, bizitegi-erabilerako ondasun higiezinatarako kontsumitzaileekin egindako kreditu-kontratuak buruzkoa eta 2008/48/EE eta 2013/36/EB Zuzentarauak eta EB 1923/2020 Erregelamendua aldatzen dituena). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko apirilaren 23ko 2008/48/EE Zuzentaraua ere bete nahi du (2008/48/EE Zuzentaraua, 2008ko apirilaren

23koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa eta 87/102/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena). Alde horretatik, kontratua sinatu aurreko informazio-sistema sinplifikatu bat ezartzen da, eta hark, hala ere, ziurtatzen du zordunak eragiketaren ezaugarri, arrisku eta kostu nagusiei buruz behar duen informazioa jasotzen duela esan bezala kontratuaren aurreko fasean, eta ezartzen du eskritura baimentzen duen notarioak, legezkotasun-kontrol arrunta egiteaz gain, egiaztatu beharko duela eragiketak xedapen honetan eta dagokion sektoreko akordioan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Bestalde, 8. artikulua salbuespenezko araubide bat ezartzen du notario-tresnak emateko, zeinetan, beharrezkoa denean, finantza-entitateen elkarrekin sustatutako akordio sektorialetako baten babesean hitzartutako luzamenduak formalizatuko diren, legezko luzamendua osatzeko eta dagozkion akordioen izapideak bizkortzeko, luzamenduok ahalik eta lasterrena erabat eraginkorrak izateko.

Luzamendu horien formalizazioa errazteko, eta bankuen eta notariotza eta erregistroen ohiko funtzionamendua kolapsatzeko arriskurik ez izateko, emakida-araubide arrunta malgutzea aurreikusten da, alarma-egoeran aurkeztutako eskaerei azkar eta modu efizientean erantzun ahal izateko, baina, aldi berean, hipoteka-zordunen eskubideak egoki bermatuz eta babestuz. Izan ere, eskaera horietako asko oraindik ezin izan dira formalizatu, legearen berariazko xedapenez (16 ter artikulua).

Salbuespenezko araubide hori aplikatuko da, baldin eta finantza-entitatearen eta luzamenduaren onuradun den zordunaren artean adosten bada epemuga luzamenduaren iraupenaren pareko hilabete kopurua geroratzuz ordainduko dela printzipalaren zenbatekoa, eta gainerako baldintzak betetzen badira interesak sortzeari, komisioak eta gastuak debekatzeari eta beste edozein produktu konbinatu edo lotu galarazteari dagokienez.

Lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du errege lege-dekretu honen aurreikuspenak aplikatuko zaizkiela errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik izapidetzen ari diren luzamenduei; horretarako, izapideak egokitu egingo dira, aplikazio hori arintasuna galdu gabe eta zordunentzako bermeak murriztu gabe egin ahal izateko; azken horiek une oro jasoko dute luzamenduaren ondorioak azaltzen dituen dokumentazioa, kontratua publikatu aurretik. Dokumentazioa ezin izan bada entregatu luzamendua sinatu aurretik, zordunak luzamenduan atzera egiteko eskubidea izango du hamar eguneko epean, betiere erabakia publikatu aurretik.

Bestalde, azken xedapen baten bidez, notario-dokumentuen mailakako kuotatik salbuesteko araubidea ezartzen da bai legezko luzamenduak eta bai esparru-akordio sektorial baten babesean izenpetutako hitzarmenezko luzamenduak formalizatzeko eskrituretan, entitateek zorrak geroratzeko neurri horiek hartzea erraztu eta sustatzeko neurri gisa. Azkenik, xedapen indargabetzaile bakarrak, horri dagokionez, ezabatu egiten du alarma-egoera indarrean dagoen bitartean eskritura publikoak formalizatzeko debekua, harik eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16 ter artikulua bigarren apartatuan aurreikusitako ibiltzeko askatasuna berrezartzen den arte; izan ere, orain ezarritako araubideak aukera ematen du luzamendu-akordioa arinago publikatzeko.

Ekonomia aldetik kalteberena den kolektiboarentzako luzamendua ziurtatzeko, talka-neurriak hartu dira, eta, orain, ukitutako pertsonen kolektiboa premiaz zabaltzeko beharra planteatzen da, ordaintzeko berandutze-aitorpenak eragin ekonomikorik izan ez dezan, eta, luzatuz gero, kredituaren epemuga aurretiaz amaitu eta exekutatzeko neurriak har ez daitezten. Arriskua handiagoa da egungo egoerak zenbat eta gehiago iraun. Zordun kaltetuen kolektiboan egoera hori geldiaraztea ez da ohiko premia bat. Aitzitik, pandemiak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz gauden ezohiko egoera honetatik eta hark dakartzan ondorioetatik sortu da; bereziki, joan-etorrien ezintasunetik, eta, kasu askotan, lan- edo lanbide-jarduera ezinbestean gelditu behar horretatik. Hori dela eta, premia larri eta ohiz kanpokoa da oraingoa.

Bosgarrenik, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak hipotekarik gabeko luzamendua deritzona ekarri zuen, ziurtatzeko herritarrak finantza-sistematik kanpo ez direla geratzen beren finantza-betebeharrei aldi baterako aurre egin ezin dietelako COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz, eta, horrela, aurretik zegoen hipoteka-luzamendua



osatu zuen; bi luzamendu horien aplikazio-eremu subjektiboa bat da: COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz finantza-egoera ahulean dauden pertsona fisikoak. Hala ere, pertsona fisikoen multzoaren barruan kontsumitzaileak eta langile autonomoak daude, eta horien idiosinkrasia eta rola oso desberdinak dira sistema ekonomikoaren barruan. Desberdintasun horiek garrantzi berezia dute, baldin eta osasun-krisialdiak pertsona fisikoengan duen eragin ekonomikoa arintzen laguntzeko moduan definitu nahi bada luzamenduen aplikazio-eremu objektiboa.

Hipoteka-luzamenduaren aplikazio-eremu objektiboa zehazterakoan, kontsumitzaileen eta langile autonomoen arteko diferentziak ez du aparteko garrantzirik izan, kontratatutako hipoteka-bermearekiko finantzaketan ez baitago alde handirik eta, gainera, oso estandarizatuta baitago finantzaketa hori.

Hipotekarik gabeko luzamenduaren aplikazio-eremu objektiboa zehazteko, aldiz, ahalegin gehigarri bat egin behar da. Izan ere, finantzaketa-egituraren zati handi bat aktiboak erostera bideratutako negozio juridikoek osatzen dute, eta horien ezaugarri nagusia da normalean ezohiko kontratuen forma hartzen dutela, hau da, itun-askatasunaren printzipioan oinarritutako berariazko klausulek arautzen dituztela eta, beraz, ez direla mugatzen gure ordenamendu juridikoan aurreikusitako ohiko kontratuen berezitasunetara.

Ezohiko kontratu horien barruan, langile autonomoentzat garrantzi berezia dute finantza-errentamenduko kontratuak, sarritan eta ingelesez «leasing-kontratu» edo «leasing finantzarioko kontratu» deritzenek. Ezohiko kontratu mota zehatz hori negozio misto bat da, non erabilera-lagapena eta erosteko aukera batzen diren, eta aktibo jakin baten erosketa finantzatzeko mailegutzat har daiteke. Maileguen kategorian sailkatzea zalantzazkoa ere izan daiteke, eta era bateko eta besteko iritziak daude arlo teorikoan horri buruz, baina garrantzi handiko negozio juridikoa da langile autonomoen jarduera ekonomikoaren finantzaketari dagokionez. Beraz, komenigarritzat jotzen da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikulua aldatzea, finantza-errentamenduko kontratuak esplizituki sartzeko hipotekarik gabeko luzamenduaren aplikazio-eremu objektiboa, luzamendu horrek modu eraginkorrean balio izan dezan jarri zitzaion helbururako.

Seigarrenik, Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiarazteari buruzko ekainaren 18ko 11/2015 Legearen 55. artikulua, orain idatzita dagoen moduan, BBOFko presidentea berritzea eragozten du izendatu zuteneko agintaldia amaitu ondoren, eta une horretan bertan kargutik kentzea ezartzen du. Kontuan hartuta presidentea dela BBOFren Zuzendaritza Batzordeko kargu betearazle bakarra, eta erakundearen jarraitutasun operatiboa ziurtatzeko eta bi presidenteren arteko epe huts baten arriskua saihesteko, komeni da aurreikustea epe horren amaierak ez duela eragotziko lehendakariak jarraitzea haren ondorengoa izendatu arte.

#### *D. Enpleguaren eta Gizarte Segurantzaren arloko neurriak*

Errege-dekretu honen bidez, doikuntza teknikoak egiten zaizkie COVID-19aren eragina arintzeko Gizarte Segurantzaren arloan hartutako premiazko neurriei, haien aplikazioan interpretazio-arazoak atzematen ari direla kontuan hartuta. Doikuntza horiek beharrezkoak eta presakoak dira, kontuan hartuta interesdunek segurtasun juridikorik ez izatea ekartzen ari dela egungo idazketa.

Hala, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. eta 24. artikuluetako zehaztugabetasun batzuk doitzen dira, honako helburu honekin: batetik, jarduera uzteagatik aparteko prestazioaren aurrekontu-alderdiak argitzea, eta, bestetik, salbuespenei aplikatu beharreko araubidea argitzea, zehaztuta COVID-19ari lotutako ABEEE aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen pean dauden enpresen kotizazioetan salbuespenak egiterik ez dagoela enpresen inskripzioari, afiliazioari, altei, bajei eta datu-aldaketei buruzko datuak eta kotizazioari eta diru-bilketari buruzkoak bitarteko elektronikoen bidez emateko betekizuna bete gabe.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 48.1 artikulua aldatzen da (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri

osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko), zehazteko Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek Estatuko sektore publikoko zuzenbide publikoko entitateen araubide bera bete behar dutela 2019ko ekitaldiko urteko kontuak formulatu eta emateari aplikatu beharreko araubideari dagokionez.

Era berean, aldatu egiten da apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua (13/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 7koa, zeinaz zehaztaper terminologiko bat egiteko xedez presako zenbait neurri hartzen baitira nekazaritzako enpleguaren arloan), bai eta maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua ere (enpleguaren aldeko gizarte-neurriena), Itsasoko Gizarte Institutuari buruz behar diren aipamenak sartzeko. Zenbait artikulutan Itsasoko Gizarte Institutua aipatu ez izanak segurtasun juridikorik ez izatea dakarkie interesdunei. Sortutako segurtasun juridikorik eza konpontzeko eta hutsa zuzentzeko, Itsasoko Gizarte Institutuari buruzko bi aipamen gehitu dira testuan, haren eskumenak islatzeko, Itsasoko Gizarte Institutuak baitu Itsasoko Erregimen Berezian sartutako langile eta enpresen langabezia-prestazioak kudeatzeko eskumena.

Gainera, araudi espezifiko bat sartu da Langileen Estatutuaren testu bateginaren 33. artikuluan aurreikusitako soldata-bermeen prozeduretako administrazio-isiltasunari buruz, halako eran non, izapidetzeko epea hiru hilabetekoa izango dela adierazita, administrazio-isiltasuna baieslea izango baita epe barruan ebatzi ez bada; hori bai, legez prestazio horren onuradun izan daitezkeen pertsonen aldeko betebeharrak aitortuko ditu soilik, artikulua horretan aurreikusitako mugak aplikatzearen ondoriozko zenbatekokoak. Eta hori, inola ere onuradun izan ezin diren pertsonen horrelako prestaziorik jaso ez dezaten, eta, era berean, eskatzaileek legean aurreikusten diren gehieneko mugetatik gorako kopururik jaso ez dezaten.

Era berean, lan-ikuskaritza arloko prozedurak eteteak arau-egoera berriarekin duen denbora-koherentzia bermatzen da, eta xedatzen da osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan zerbitzuak ematen dituzten langileek sortzen dituzten Gizarte Segurantzako prestazioak lan-istripuztat joko direla baldin eta langileok pandemiaren edozein fasetan beren lanbidean zihardutela eta osasun-zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak ematean arrisku espezifiko horren eraginpean zeudela hartu badute COVID-19a.

Era berean, aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta berriro berenberegiratu aipatzen da titular bat baino gehiago duten ustiategietan proportzionalki langile gehiago kontratatu ahal izango direla Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartu ahal izateko. Neurri horren bidez, familia-ustiategiekin tamaina egokia hartu ahal izatea bultzatu nahi da. Ustiategi berean titular bat baino gehiago daudenez, langileen kopurua doitu egin daiteke, eta, beraz, bi langileez gain, titular berri bakoitzeko langile bat gehiago izan daiteke (eguneko oinarrien modalitatean, 273 ordu baliokide), eta, horrela, kotizazio-sistema berezitik atera behar izatea saihestu daiteke, guztiak nekazari txikiak baitira.

Bestalde, apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretu hark automatikoki aitortzen die lan egiteko eskubidea gazte atzerritarrei, herrialdean haien estatutu erregularrak ez badakar berekin eskubide hori. Gazte horiek, beren lanarekin, COVID-19aren krisian funtsezko sektore bati eusten laguntzen ari dira. Gainera, errege lege-dekretu honetan oinarrituta, horietako asko lehen lan-aukera izaten ari dira, eta horrek, modu erabakigarrian, gazte horiek integratzen laguntzen du, adingabeak ziren bitartean adingabeak babesteko zerbitzu baten legezko tutoretzapean, jagoletza pean, behin-behineko babesean edo zaintzapean egon diren gazteak integratzen batez ere.

Horregatik, beharrezkoa da bide bat ezartzea gazte horiei aukera emango diena lanerako eskubidea atxikitzeke nekazaritza-sektorearen errege lege-dekretuaren indarraldia amaitu ondoren. Horretarako, errege lege-dekretu honen bigarren xedapen gehigarriak bide espezifiko bat zabaltzen du, aukera emango diena, nekazaritza-sektorean apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1.d) artikuluan oinarrituta kontratatu badituzte, haren indarraldia amaitu ondoren bizileku- eta lan-baimen bat eskuratzeko, lurralde nazional osoan baliozkoa izango dena eta sektore- edo jarduera-mugarik gabea,

eta enplegu-egoera nazionala aplikatu gabe. Baimen horrek bi urteko indarraldia izango du, eta beste bi urterako berritu ahal izango da. Nolanahi ere, luzerako bizilekua eskuratzeko, titularra izan den baimen horrekin edo beste batzuekin izandako egonaldi guztiak hartuko dira kontuan (legezkoak eta jarraituak).

Lehenengo xedapen gehigarrian, salbuespen hau ezartzen da Estatuko Administrazioan gastua mugatzeko erabakian: Barne Ministerioaren, Polizia Nazionaleko sindikatuen eta Guardia Zibilaren elkarte profesionalen arteko 2018ko martxoaren 12ko Akordioan 2020ko ekitaldirako esleitutako zenbatekoa ordaintzea.

Bestalde, gaur egungo egoeran, Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako hainbat ekarpen jasotzen dira.

Azkenik, jendaurreko ikuskizunetako artisten langabezia-prestazioa egokitzen da, 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoa (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira). Kontua da argitzea prestazioa jasotzeko ezohiko aukera izateak berak erantzuten diola COVID-19aren osasun-krisiari, eta artistek ez dute egiaztatu beharrik berek jarduerarik ez izatea haren ondorio dela. Era berean, jarduerarik gabeko borondatezko aldian egoteko baldintza kendu da, horrek langileari ekarriko liokeen kostua ezabatu eta prestazioa izapidetzea eta aitortzea erraztu. Halaber, segurtasun juridikoaren mesedetan, prestazioaren kobrantza eten daitekeela zehazten da, norberaren edo besteren konturako lanak egiteko, eta gero berriz has daitekeela.

#### *E. Tributuen arloko neurriak.*

Zergen arloan, berandutze-interesak ez sortzeko epea lau hilabeteraino luzatzen da honako artikulua hauetako geroratzearako: martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 14. artikulua (7/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen) eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 52. artikulua (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, 40. artikuluan ezohiko arauak ezarri zituen lege horretan bertan 41. artikuluan aplikazio-eremuan ez dauden zuzenbide pribatuko pertsona juridikoen urteko kontuak formulatu, egiaztatu eta onartzeko (sozietate anonimo kotizatuei buruzkoa da 41. artikulua). Egoera horrek sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkezteko betebeharrari eragiten dio; izan ere, zuzeneko zenbatespenaren metodoan, kontabilitateko emaitzan oinarrituta zehazten da zerga-oinarria. Alde horretatik, aipatutako ezohiko neurriek eragindako ondorioak arintzeko, zergaren aitorpen-epea amaitu baino lehen urteko kontuak onartu ezin izan dituzten zergadunei aukera ematen zaie aitorpena une horretan eskuragarri dauden urteko kontuekin aurkez dezaten, arauan ezarritako baldintzetan.

Ondoren, kontuak zuzenbidearen arabera onartzen direnean eta behin betiko kontabilitate-emaitza ezagutzen denean, bigarren aitorpena aurkeztuko da. Bigarren autolikidazioa osagarritzat hartuko da, baldin eta hortik ateratzen bada ordaindu beharreko diru kopurua handiagoa dela edo itzuli beharreko diru kopurua txikiagoa dela lehen aitorpenaren ondoriozkoa baino. Gainerako kasuetan, bigarren autolikidazio hori lehenengoaren zuzenketatzat hartuko da, eta aurkezte hutsagatik izango ditu ondorioak, Zerga Administrazioak autolikidazio hori bidezkoa den ebatzi beharrik izan gabe. Bigarren autolikidazioak ez du inola ere ondorio preklusiborik izango, eta sozietateen gaineko zerga ezin izango da erabat egiaztatu.

Aurrekoaren harira, jarduera ekonomikoa, soziala, administratiboa eta judiziala suspertzen segitzeko eta sistemari segurtasun juridikoa emateko, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua aldatzen da, eta ezartzen da urteko kontuak eta legez nahitaezkoak diren gainerako dokumentuak egiteko hiru hileko epea ekainaren 1ean hasiko dela, eta ez alarma-egoera amaitzen denean. Horrekin, segurtasun juridikoa

ematen da. Izan ere, uniformea ez den epe dinamikoa egun jakin batekin ordeztzen da, ekainaren 1arekin –bestela, aldatu egingo litzateke epea, autonomia-erkidegoaren deskonfinamendua zenbateraino arindu den eta sozietatea zer lurraldetan dagoen–, eta trafiko juridiko soziala berraktibatzen da. Horretaz gainera, urteko kontuak onartzeko epea hiru hilabetetik bi hilabetera murrizten da formulazioa egiten denetik; beraz, enpresek alde zuzenetik izango dituzte onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako kontuak. Eta epe hori bateratu egiten da sozietate guztientzat, kotizatuak izan zein ez; hala, guztiek kontuak onartuta eduki beharko dituzte ekitaldiko lehen hamar hilabeteen barruan.

## II. Errege lege-dekretuaren konstituzio-betekizunak betetzea

Errege lege-dekretua neurri horiei eusteko tresna gisa erabiltzeari dagokionez, bi gauza hartu behar dira kontuan: errege lege-dekretu bidez arlo batzuk ezin direla arautu eta, gainera, inguruabar jakin batzuk gertatu behar direla errege lege-dekretua erabiltzeko. Arautu ezin diren arloei dagokienez, hona zer ezartzen duen Konstituzioak 86.1 artikuluan: errege lege-dekretuek «ezin eragingo diete, ez Estatuaren funtsezko instituzioen ordenamenduari, ez I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, ez autonomia-erkidegoen araubideari, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrari». Errege lege-dekretu honek ez dio eragiten gai horietako bakar bati ere, orain indarraldia luzatzen zaion arauarekin gertatzen zen bezala.

Izan ere, arauan sartzen diren xedapenek ez dute ukitzen aurreko elementu horietako bakar bat ere muinean: ez da Estatuko funtsezko erakunderik arautzen; ez da ukitzen herritarren eskubide eta betebeharren izaera; ez da autonomia-erkidegoen araubidearen gaineko eraginik sortuko, ez baitira horrentzat hemengo neurriak, eta hauteskunde-araubidearekin ere ez dago inolako loturarik. Beraz, xedapen horien edukian ez dago ezer haiek onartzea eragozten duenik puntu honetan.

Errege lege-dekretua erabiltzea aparteko eta presako beharrezkoak jotzeko gertatu beharreko inguruabarrak direla eta, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiaren doktrina, 2018ko ekainaren 7ko 61/2018 epaiaren 4. oinarri juridikoan laburbiltzen dena. Doktrina horren arabera, batetik, beharrezkoa da «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presazko egoera azaltzea; bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean». Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala, «errege lege-dekretuaren erabilera «egoera ekonomiko zailetan» onartu izan da, Konstituzioaren arabera guztiz zilegi baita horrelakoetarako; izan ere, bidezkoa eta egokia da presako legegintza justifikatzen duen xedea lortzeko: «Gobernuaren helburuen barruko egoera jakin batzuk laguntzea, aurreikusteko zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen dutenak, esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan» (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 31/2011, martxoaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2011, irailaren 14koa, 6. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa). Azkenik, ohartarazi behar da erreforma hau egiturazkotzat jotzeak ez duela berez eragozten errege lege-dekretua erabiltzea; izan ere, konpondu nahi den arazoa ustez egiturazkoa bada ere, baliteke noizbait aparteko eta presako beharrezkoak bihurtzea eta, beraz, orduan bidezkoa izatea errege lege-dekretua onartzea. Beharrezkoak diren erabakitzeak, kasu kasuko inguruabarrak aztertu beharko dira (Konstituzio Auzitegiaren 137/2011 epaia, 6. oinarri juridikoa, Konstituzio Auzitegiaren epai hauetan berretsia: 183/2014, 5. oinarri juridikoa; 47/2015, 5. oinarri juridikoa; 139/2016, 3. oinarri juridikoa)».

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria) eta kasu honetan gertatzen den bezala, presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurrez ikusten zailak diren arrazoiengatik araudia

berehala ematea eskatzen duen egoera batean –esan nahi baita ohiko bidea erabilia edo legeen izapidetze parlamentarioak presazko prozedura erabilia beharko litzatekeena baino epe laburragoan–, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean. Osasun-krisialdiaren bilakaera dela eta, ezinbestekoa da egoera normaletan beharrezkoak izango ez ziren eta eraginkortasunez errege lege-dekretu baten bidez soilik har daitezkeen neurri batzuei eustea. Gauza bera gertatzen da arau honetan aurreikusten den gazte atzerritarren enplegu-baimenari buruzko salbuespenezko neurriarekin, kontuan hartuta araudi horren indarraldia bera eta errege lege-dekretu honekin duen lotura estua.

Era berean, genetikoki eraldatutako organismoen ikerketaren arloan adostutako baldintza berezien gehikuntza eta enpleguaren arloko neurriak modu berean daude justifikatuta, batez ere kontuan hartuta horiek beste errege lege-dekretu batean idatzita eman zirela eta, beraz, justifikazioa tresna haietarako baliatutako justifikazio bera dela puntu horietan.

Era berean, ezinbestekoa denez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 123. artikulua araberako partzuergo lege mailako arau baten bidez sortzeko baimena izatea, guztiz justifikatuta dago figura hori erabiltzea partzuergo hori baimentzeko, Espainiako sistema zientifikorako oso garrantzitsua delako eta Espainiako Erresumak hartutako nazioarteko konpromisoak ahalik eta modu zehatzenean beteko direla bermatzen duelako. Hala, arrazoituta dago figura hori erabiltzea; izan ere, lege arruntaren epeak kontuan hartuta, lege arruntaren bidez ezin da izapidetu, ezta presako prozeduraren bidez ere, lehenbailehen izan behar baita partzuergo eratzeko modua.

Hala, partzuergo hori sortzeko, aparteko eta presako beharizana dago, hori errege lege-dekretuan sartzeko behar den beharizana, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan ezarritakoaren araberako. Lehenik eta behin, ESFRI (European Strategic Forum on Research Infrastructures) erakundearen ibilbide-orrian IFMIF-DONES sartzeko lortzean eta hari lotutako Europako finantzaketa (4 milioi euro) lortzean Espainiako Erresumak hartutako konpromisoak zera eskatzen du, beste neurri askoren artean: proiektu-egitura bat berehala abian jartzea, baliabide egokiz hornitua, ESFRIn aurreikusitako prestaketa-fasea arrakastaz burutu ahal izateko. Gaur egun, nazioarteko negoziazioa egiten ari dira, beste bazkideek proiektuan izango duten parte-hartzea definitzeko eta proiektuaren lege-egitura eta gobernantza definitzeko. Partzuergoak proiektuan zeregin garrantzitsua izan behar duenez, eta nazioarteko bazkideei egiten diren proposamenak bideragarriak direla erakusteko, guztiz funtsezkoa eta premiazkoa da proiektua abian jartzeko oinarritzko egitura bat izatea. Proiektuaren bideragarritasunari eusteko, Europar Batasunaren 2021-2027ko aldiko ikerketa-aurrekontuak onartu baino lehen jarri behar da martxan partzuergoak. Bigarrenik, adierazi behar da datozen urteetan jarduera horietan inbertitzeko aurreikusitako funtsen zati nabarmen bat Horizonte 2020ri lotuta dagoela, eta, beraz, 2023a baino lehen gauzatu eta justifikatu behar da gastua. Partzuergoak da funts horiek dagoen epean modu efizientean kudeatzea ahalbidetzen duen tresnarik onena, eta, beraz, hori sortzea premiazkoa da une honetan. Hirugarrenik, partzuergo hori sortzeak 1.000 milioi euro baino gehiagoko onura ekonomikoak ekarriko dio Espainiari, martxan jartzearen eta funtzionatzearen ondorioz; beraz, jarduera ekonomikoari bultzada handia emango dio SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz gaur egun sortu den egoera korapilatsu honetan.

Konstituzio Auzitegiak ontzat jo du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzea beharra eta presa esplizituki eta arrazoituz justifikatzen direnean, hau da, egoera ekonomikoak erantzun azkar bat eskatzen duenean eta neurri horiek arauzko bide arruntaren bidez izapidetzeko denboran atzeratzeak kalteren bat ekar dezakeenean. Zalantzarik gabe, gure herrialdearen egoerak hainbat neurri hartzeko aparteko eta presako beharizana justifikatzen duten arrazoiak ematen ditu. COVID-19a geldiarazteko eta hari aurre hartzeko egoera honetan, presakoa eta beharrezkoa da epidemia eten eta haren hedapena eragozteko osasun publikoak babesteko, baita neurri ekonomikoak hartzea ere epidemiaren ondorioei aurre egiteko.



Ondorioz, ziurta daiteke lotura zuzena dagoela definitutako presaren eta hari erantzuteko hartutako neurri zehatzaren artean: adostutako neurriei eusteko eta gainerakoak aldatzeko, ezin da egon izapidetze parlamentarioaren zain; izan ere, atzeratuz gero, garestiegiak izango lirateke nekazaritzako elikagaien ekoizpenean eta biztanleriarentzako horniduran izango lituzkeen ondorioak. Errege lege-dekretu hau indarrean berehala jartzea ere egokia da, bestelako aukera bat eginez gero askoz luzeago joko lukeelako (Konstituzio Auzitegiaren 68/2007 epaia, 10. oinarri juridikoa, eta 137/2011 epaia, 7. oinarri juridikoa).

### III. Erregulazio onaren printzipioetara egokitzea

Errege lege-dekretu hau premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioei jarraituz ematen da, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan baitaude jasota. Alde horretatik, aldaketa hau beharrezkoa eta eraginkorra da, behar horiek betetzeko aldaketa premiazkoenak egin behar direlako une honetan, eta horretarako ez dagoelako beste baliabiderik lege-mailako araua baino. Gardentasun-printzipioaz denaz bezainbatean, kasu honetan errege lege-dekretua onartzen denez, ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar. Era berean, proportzionala eta gardena da; izan ere, aldaketa honek une honetan interes publikoa babesteko beharrezkoak diren elementuak bakarrik sartzen ditu, luzapenaren bidez, eta, era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, neurri guztiak behar bezala egokitzen direla bermatzen baita. Azkenik, efizientziaren printzipioa betetzat jotzen da, ez baita egungo araudiaren aldean zama administratibo berririk ezartzen, ezinbestekoak izan ezik.

Xedapen hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean ematen da, orokorrean, artikulua horrek jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena esleitzen baitio Estatuari. 1. eta 9. artikulua eta hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak, gainera, 149.1 artikuluko 7. eta 17. arauak babesten dituzte; arau horien bitartez, eskumen hauek esleitzen zaizkio Estatuari: lan-legeriaren alorreko eskumen eskusiboa (horrek ez du kentzen hura autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea), eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legeriaren eta araubide ekonomikoaren alorreko eskumen eskusiboa (horrek ez du kentzen haren zerbitzuak autonomia-erkidegoek betearaztea). 4., 5., 10., 11. eta 12. artikulua, lehenengo eta hirugarren xedapen gehigarriak eta bigarren xedapen iragankorra, gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.1.14. artikulua babesten ditu, artikulua horrek Ogasun Publikoaren eta Estatuaren Zorren gaineko eskumena esleitzen baitio Estatuari. 6., 7. eta 8. artikulua eta lehenengo xedapen iragankorra, gainera, 6., 8. eta 11. arauak Estatuari merkataritza-legeriaren, legeria zibilaren, kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeke oinarrien eta betiere erregistroak eta tresna publikoak antolatzeari buruzko arauen eta kontratu-betebeharren oinarrien gainean esleitzen dizkioten eskumenen arabera eman dira; horrek ez du kentzen autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foralak edo bereziak kontserbatu, aldatu eta garatzea, baldin eta halakorik badago. 2. artikulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.15 artikuluan xedatutakoak babesten du; artikulua horrek ikerketa zientifiko eta teknikoak sustatzeko eta koordinazio orokorra egiteko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari. 3. artikulua 149.1.21 artikuluaekin bat etorritik eman da; artikulua horrek telekomunikazioen arloko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari. Bigarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 2. arauak babesten du; arau haren bidez, nazionalitatearen, immigrazioaren, emigrazioaren, atzerriartasunaren eta asilo-eskubidearen arloko eskumen eskusiboa esleitzen zaio Estatuari.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroak, Gobernuko hirugarren lehendakariorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak, Justiziako ministroak, Ogasuneko ministroak, Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroak, Kultura eta Kiroleko ministroak, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako, Zientzia eta Berrikuntzako ministroak, Kontsumoko ministroak eta Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioko ministroak

proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko maiatzaren 26ko bilera eztabaidatu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

1. artikulua. *Apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusten diren nekazaritzako enplegua malgutzeko neurrien indarraldia luzatzea (13/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 7koa, zeinaz presako zenbait neurri hartzen baitira nekazaritzako enpleguaren alorrean).*

1. Luzatu egiten da neurri hauen indarraldia, 2020ko irailaren 30era arte: enplegua malgutzeko ezohiko neurriak, izaera sozial eta laboralekoak, 13/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulutik 5.era eta lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitakoak (13/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 7koa, zeinaz presako zenbait neurri hartzen baitira nekazaritzako enpleguaren alorrean).

2. Enpresek eta enplegatzaileek autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoei jakinarazi beharko diete, hitzartu eta hamar egun baliaduneko epean, zer kontratazioren indarraldia luzatzea erabakitzen den, eta amaitzeko data berria adierazi beharko dute.

2. artikulua. *Espanian International Fusion Materials Irradiation Facility-Demo Oriented Neutron Source azpiegitura zientifiko-teknikoa eraikitzea bultzatzeko partzuergoa sortzeko baimena.*

1. Baimena ematen da Spainian International Fusion Materials Irradiation Facility-Demo Oriented Neutron Source (IFMIF-DONES) eraikitzeko hautagaitzari eta litekeen eraikuntzari laguntzeko partzuergo bat sortzeko.

2. Partzuergoan Estatuko Administrazio Orokorak (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak) eta Andaluziako Juntak parte hartuko dute, eta baliabideak jarriko dituzte hari eusteko. Partzuergoaren behin betiko izendapena partzuergoa arautzen duen hitzarmenean eta estatutuetan ezarriko da.

3. IFMIF-DONES azpiegitura Spainian egiteko hautagaitzak irauten duen bitartean egongo da indarrean partzuergoa, eta gero ere jarraitu ahal izango du, hautagaitzak arrakasta izanez gero, Espainiako Erresumari nazioarteko azpiegituraren herrialde anfitrioi gisa dagozkion betebeharrak erantzuteko eta hura eraikitzen laguntzeko.

3. artikulua. *Zorraz zatikatzea eta geroratzea komunikazio elektronikoen zerbitzuetan.*

1. Komunikazio elektronikoen operadoreek zatikatu eta ondorioz geroratu beharko dute abonatuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri zen egunetik eta haren luzapenetan eta betiere 2020ko ekainaren 30a arte (bi egunak barne) kobratzeko aurkeztutako fakturei dagokien zorra, abonatuak hala eskatuz gero (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko).

Zorra zatikatze eta geroratze baldintzak hauek izango dira:

- Zatikatzeko lineala izango da zorra geroratutako hilabeteetan.
- Ordainketa zatikatuak egiteko epea sei hilabetekoa izango da, non eta abonatuak eta operadoreak ez duten beren kasa beste epe bat adostu, luzeagoa edo laburragoa.
- Ez da berandutze-interesik sortuko, eta ez da bermerik eskatuko zorra zatikatze eta geroratze.

2. Zorra zatikatze eta geroratze eskaera onartzen bada, zerbitzua ematen duen operadorea aldatuz gero, eten egingo da abonatuak esleitu zaizkien zenbakiak gordetzeko duten eskubidea, harik eta abonatuak geroratutako zorra egunean izan arte, edo, betiere, sei hilabeteko epean, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Aurreko apartatuan adierazitako moduan zorra zatikatze eta geroratze eskatzen edo onartzen ez duten abonatuak etenda edukiko dute operadorea aldatuta ere zenbakiak

gordetzeko eskubidea, harik eta operadorearekin egindako zorra kitatu arte, eta, betiere, hiru hilabeteko epean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoeraren eta haren luzapenen indarraldia amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Aurrekoa gorabehera, abonatuak ez dute etenda edukiko esleitutako zenbakiak gordetzeko eskubidea, operadorea aldatuz gero, baldin eta operadoreari fakturarekin ados ez daudela jakinarazten badiote eta, behar bezalako erantzunik izan ezean, dagokion erreklamazioa jartzen badute erakunde ofizial batean.

Hala, operadoreak gehienez ere astebeteko epean ebatzi beharko du abonatuak aurkezten dion erreklamazioaz. Ebazpen horrek edo gehieneko epe horretan ebazpenik ez egoteak azken erabiltzaileen erreklamazioak izapidetzen dituzten erakunde ofizialetara jotzeko legitimazioa emango dio abonatuari.

#### 4. artikulua. *Larrialdietako Langabezia Arriskuak Arintzeko Aldi Baterako Europako Laguntza Tresnaren esparruan (SURE tresna) Europako Batzordearen aldeko abalak emateko baimena.*

1. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 114. artikuluan ezarritakoaren babesean, Estatuko Administrazio Orokorrari baimena ematen zaio Europako Batzordearen alde eta SURE tresnaren esparruan 2020. urtean gehienez 2.252.890.750 euroren abalak emateko, Kontseiluaren 2020ko maiatzaren 19ko 2020/672 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren esparruan eta erregelamendu horretan zehazten diren ezaugarrien arabera (erregelamendu hori COVID-19aren larrialdi batean langabezia-arriskuak arintzeko aldi baterako Europako laguntza-tresna bat [SURE] sortzeari buruzkoa da). Abalak baldintzarik gabekoak, ezeztaezinak eta Europako Batzordearen lehenengo eskaerakoak izango dira, eta uko egingo zaio Kode Zibilaren 1.830 artikuluan ezarritako eskusio-onurari.

2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren egintzak emateko eta Europako Batzordearekin abalak emateko baldintzak eta ordainketa-baldintzak ezartzen dituen akordioa edo akordioak sinatzeko. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak finantza-merkatuetan ohikoak diren klausulak hitzartu ahal izango ditu, 47/2003 Legearen 116. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Europako Batzordearekin akordio bat sinatuz.

3. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak baimena dauka abalaren exekuzioari dagozkion ordainketak egiteko, altxortegi-eragiketaren bitartez, horretarako sortuko diren berariazko kontzeptuen kargura.

Ordainketak egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak gastuen aurrekontuan aplikatuko ditu. Urte bakoitzeko abenduan egindako ordainketak hurrengo hiruhilekoan aplikatuko zaizkio gastuen aurrekontuari.

4. Emandako abalen exekuzioei dagozkien zenbatekoak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren aurrekontu-partida honetatik ordainduko dira: 27.04.9230.351 «Altxorak emandako abalen arriskuak estaltzea, aurreko ekitaldietako arriskuak barne». Kreditu hori zabalgarria da, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen II. eranskinaren arabera («Kreditu zabalgarriak»), Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 59. artikuluan abal horiei buruz xedatutakoa aplikatuko zaio.

#### 5. artikulua. *Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak emandako abalen exekuzioen aurrekontu-estaldura, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.*

1. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak enpresei eta autonomoei martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera emandako finantzaketari emandako abalak exekutatzeko

zenbatekoak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren aurrekontu-partida honen bidez ordainduko dira: 27.04.923O.351 «Altxorrek emandako abalen arriskuak estaltzea, aurreko ekitaldietako arriskuak barne». Kreditu hori zabalgarria da, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen II. eranskinaren arabera («Kreditu zabalgarriak»), Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 54. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 59. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuari jarraituz emandako abalei dagokienez.

2. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak baimena dauka abalaren exekuzioari dagozkion ordainketak egiteko, altxortegi-eragiketen bitartez, horretarako propio sortuko diren kontzeptuen kargura.

Ordainketak egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak gastuen aurrekontuan aplikatuko ditu. Urte bakoitzeko abenduan egindako ordainketak hurrengo hiru hilabeteetan aplikatuko zaizkio gastuen aurrekontuari.

6. artikulua. *Finantza-entitateak ordezkatzeko dituzten elkarteek sustatutako esparru-akordio sektorialak, koronabirusaren krisiak ukitutako bezeroen finantzaketa-eragiketak geroratzeari buruzkoak.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz zordunekin hitzarmenezko luzamenduak emateko esparru-akordio sektorialeki atxikitzen zaizkien finantza-entitateek artikulua honetan eta 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute, baldin eta esparru-akordio sektorial horiek Espainiako Bankuari jakinarazi bazaizkio erregistra ditzan. Hark bere webgunean argitaratuko ditu.

2. Horri dagokionez, hauek jotzen dira finantza-entitateak: kreditu-entitateak, kredituko finantza-establezimenduak, kreditu higiezinaren mailegu-emaileak, ordainketa-entitateak eta diru elektronikoko entitateak.

3. Esparru-akordio sektorial bati atxikitzen zaizkion finantza-entitateak, egun baliodun bakoitzean, aurreko egun baliodunari buruzko informazio hau bidaliko diote Espainiako Bankuari:

- a) Zordunek aurkeztutako etete-eskaeren kopurua.
- b) Emandako etenduren kopurua.
- c) Ezetsitako etete-eskaeren kopurua.
- d) Etetearen onuradun kopurua, alde batetik zordunen eta abal-emaileen artean eta bestetik soldatapekoen eta enpresaburu/profesionalen artean bereizita.
- e) Ordainketa eten zaien maileguen kopurua.
- f) Amortizatze dagoen saldo bizia, zeinaren ordainketa eten egiten baita.
- g) Zorduna egiten ari zen jardueraren EJSNa.
- h) Zordunak etendura notario-eskrituran dokumentatzeko eskatzen duen maileguen kopurua.

4. Artikulu honetan, 7. eta 8. artikuluetan eta lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitakoa Kreditu Erakundearen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 2. artikuluan aipatutako antolamendu- eta diziplina-arautzat hartuko da.

7. artikulua. *Esparru-akordio sektorial baten babesean sinatutako hitzarmenezko luzamenduei buruzko xedapen orokorrak.*

1. Zordunak eta haren finantza-entitateak esparru-akordio sektorial baten babesean sinatutako hitzarmenezko luzamendua mota guztietako mailegu, kreditu eta errentamendu finantzarioei buruzkoa izan daiteke.

2. Zordunak eta haren finantza-entitateak, esparru-akordio sektorial baten babesean sinatutako hitzarmenezko luzamenduan, geroratutako zenbatekoa honela ordaintzea erabaki ahal izango dute, hasierako mailegu-kontratuan itundutako interesen sortzapenari kalterik egin gabe:

- a) Kuotak birbanatzea epemuga aldatu gabe, edo
- b) Luzamenduaren iraupenaren pareko hilabete kopuruan atzeratzea epemuga.

Zordunak eta finantza-entitateak ordainketak babesteko edo mailegua amortizatzeko kontratatutako aseguruia luzatzea erabaki ahal izango dute berrituko den maileguarekin, hasieran hitzartutako baldintza eta prima berberekin, eta maileguaren epemuga luzatzen den aldi bererako, eta, hortaz, prima zordunduz. Ordainketak babesteko asegurutzat, horri dagokionez, aseguraturako zordunaren langabezia-kontingentzia edo aldi baterako ezintasuna estaltzen duena hartuko da, eta amortizazio-asegurutzat, berriz, maileguaren kapital osoaren edo zati baten gaineko heriotza- edo baliaezintasun-kontingentzietan zorduna estaltzen duena.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren luzamenduetan ezin izango da inola ere:

- a) Itundutako interes-tasa aldatu.
- b) Gasturik edo komisiorik kobratu, mailegua interesik gabekoa denean eta gastuaren edo komisioaren eraginak hasierako kontratuan adostutako urteko tasa baliokidea (UTB) handitzea ez dakarrenean izan ezik, edo aurreko apartatuan adierazitako aseguru-kontratuaren luzapenaren prima denean izan ezik.
- c) Lotutako edo konbinatutako beste edozein produktuekin batera merkaturatu.
- d) Jatorrizko kontratuan jasota ez dagoen berme gehigarri pertsonal edo errealki ezarri.

4. Finantza-entitateak aldi berean edo elkarren segidan legezko luzamendu bat eta hitzarmenezko luzamendu bat ematen dituenean, zordunarekin sinatutako hitzarmenezko luzamenduaren akordioak espresuki jasoko du legezko luzamenduaren onarpena, eta eten egingo dira hitzarmenezko luzamenduaren ondorioak, harik eta legezko luzamendua amaitzen den unera arte.

5. Artikulu honen ondorioetarako, hau hartuko da legezko luzamendutzat: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.3, 14. eta 15. artikuluetan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2 eta 25. artikuluetan araututakoa (8/2020 Errege Lege Dekretua COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena da; 11/2020 Errege Lege Dekretua, berriz, COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena).

6. Manu honetan aipatzen den luzamendua formalizatu aurretik, finantza-entitateak maileguaren baldintzei buruzko informazio sinplifikatua eman beharko dio zordunari, hitzarmenezko luzamendua ezartzeko akordio-proposamenarekin batera. Informazio horretan, gutxienez, hauek jaso beharko dira:

- a) Dena delako mailegua (epea luzatuta edo luzatu gabe) geroratzeak zer ondorio juridiko eta ekonomiko dituen.
- b) Hala badagokio, ordainketak babesteko edo mailegua amortizatzeko hasiera batean kontratatutako aseguruia luzatzeko baldintzak zein diren berritutako maileguarekin.

7. Aurreko apartatuan aipatutako hitzarmenezko luzamendua ezartzeko erabaki-proposamena eta informazio sinplifikatua doan emango dizkio finantza-entitateak zordunari, euskarri iraunkor batean, edozein bitarteko erabilia, finantza-entitateak dituen banku elektronikoko zerbitzuak eta telematikoak barne; betiere, edukia eta zordunari entregatu izana egiaztatzeko aukera eman behar dute.

8. Mailegu-hartzaileak eta, hala badagokio, fidatzaileak eta abal-emaeleak eskuz, sinadura elektronikoen bidez, zordunak eta finantza-entitateak kontratuan finkatutako adostasuna emateko sistemaren bidez edo adostasuna baliozko eran lortzea ahalbidetzen duen beste edozein bide erabiliz sinatu ahal izango dute artikulu honetan eta 6. eta 8.



artikuluetan aurreikusitakoaren arabera hitzarmenezko luzamenduaren akordioa. Nolanahi ere, erabilitako bitartekoak jasota utzi beharko ditu edukia eta baimena eman den eguna. Dagokion erregistroan inskribatzeko, luzamendu-akordioa agiri publikoan jaso beharko da erregela orokorren arabera nahitaezkoa denean.

9. Aurreko artikuluan adierazitako esparru-akordio sektorial bati atxikitako hitzarmenezko luzamendua ezartzen duen kontratua formalizatzeko, ez da honako hauetan aurreikusitakoa bete beharko:

- a) Higiezin Kredituko Kontratuak arautzen dituen martxoaren 15eko 5/2019 Legearen 10., 11., 12., 14. eta 15. artikulua eta lehenengo xedapen iragankorraren 2. apartatua eta
- b) Kontsumorako Kreditu Kontratuei buruzko ekainaren 24ko 16/2011 Legearen 7. artikulutik 12. artikulurakoak eta 14. artikulua.

10. Zordunak eta haren finantza-entitateak esparru-akordio sektorial baten babesean sinatutako hitzarmenezko luzamendua dagokion erregistroan inskribatzeak ondorio guztiak izango ditu, hala badagokio, inskribatuta dauden tarteko hartzekodunen aurrean, nahiz eta hartzekodun horien adostasuna ez izan.

11. Notario-tresnen notario- eta erregistro-zergak, artikulua honetan aurreikusitakoari atxikitako hitzarmenezko luzamenduko zordunarekin sinatutako akordioa publiko egitekoak, eta dagokion erregistroan inskribatzeko zerga martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16 ter artikuluan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.6 artikuluan aurreikusitakoak izango dira (11/2020 Errege Lege Dekretua, gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen COVID-19ari aurre egiteko).

8. artikulua. *COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz hartutako esparru-akordio sektorialen babesean izenpetutako hitzarmenezko luzamenduak formalizatzeko salbuespenezko araubidea.*

1. Berme erreala duen mailegu edo kreditu baten printzipala edo printzipala eta interesak geroratzea soilik ituntzen baldin bada luzapenean, edo inskribatzeko agiri publiko batean formalizatu behar den eta (hala badagokio) 7. artikulua 2. apartatuan aipatzen den ordainketak babesteko aseguruia edo mailegua amortizatzeko aseguruia ere luzatu behar den finantza-errentamendu baten printzipala edo printzipala eta interesak geroratzea ituntzen baldin bada, finantza-entitateak, bere kabuz, jendaurrean jarriko du zordunak eta (hala badagokio) fidatzaileek eta abal-emaileek sinatutako luzamendu-akordioa. Horretarako, hauek bete behar dira:

- a) mugaeguna atzeratuz gauzatzea luzamendua, eta
- b) zordunak espresuki ez adieraztea notarioaren aurrean agertu nahi duela alde biko egilespenerako.

2. Notarioak protokoloan jasoko ditu, sinatutako eta aurreko apartatuan adierazitako akordioarekin batera:

- a) 7. artikulua 2. apartatuan aipatzen den ordainketak babesteko edo mailegua amortizatzeko aseguruaren luzapena, hala badagokio,
- b) Aurreko artikulua 6. apartatuan aipatzen den informazio sinplifikatua.
- c) Zordunak hura jaso izanaren egiaztatzea, eta
- d) Erantzukizunpeko adierazpen bat, finantza-entitatearen izenean jarduteko ahalorde nahikoa duen pertsona batek sinatua, honako hauek adierazten dituen:

i. Luzapena zehazki zer esparru-akordio sektorialetan sartzen den; eta esparru-akordio sektorial horretako baldintza guztiak betetzen dituela.

ii. Zordunak 7. artikulua 6. apartatuan adierazten den informazio sinplifikatua jaso duela.

iii. Zordunaren adostasuna 7. artikulua 8. apartatuan aurreikusitakoaren arabera eman dela, eta

- iv. Luzamendu-akordioa sinatu zen eguna.
3. Notarioak zordunari doan emango dio notario-tresnaren kopia simple bat, artikulua honetan aurreikusitakoari atxikitako hitzarmenezko luzamenduaren akordioa alde bakarretik publiko egiten duena.
4. Notario eskuesleak, nolana ere, egiaztatu beharko du finantza-entitateak 7. artikuluan aurreikusten den informazio sinplifikatua eman diola zordunari, eta emakida atzera bota beharko du, artikulua honetan eta 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat ez badator.
9. artikulua. *Lan-istripuak eragindako kontingentzia profesionaltzat hartzea osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten langileek alarma-egoeran SARS-CoV2 birusaz kutsatzearen ondorioz hartutako gaixotasunak.*
1. Osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden langileek sortzen dituzten Gizarte Segurantzako prestazioak laneko istripuen ondoriozko prestaziotzat hartuko dira, baldin eta langileek, beren lanbidean zihardutela eta osasun-zerbitzuak eta zerbitzu soziosanitarioak ematen zituzten bitartean SARS-CoV2 birusaren arriskuaren eraginpean egonda, birusa hartu badute izurritearen edozein fasean, eta laneko arriskuen prebentzioko eta laneko osasuneko zerbitzuek hala egiaztatzen badute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 156.2.e) artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen direla irizita (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).
2. Aurreikuspen hori alarma-egoera amaitu eta hurrengo hilabetera arte SARS-CoV2 birusaz kutsatuei aplikatuko zaie; lan-istripuaren partearen bidez egiaztatu beharko da hilabete hori igaro baino lehen kutsatu direla, eta parteak ere epe horren barruan egina beharko du.
3. Gaixotasunaz kutsatu eta horrekin hilez gero hurrengo bost urteak igaro baino lehen, lan-istripuztat joko da heriotza, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 217.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
10. artikulua. *Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren gastu-aurrekontuaren aurrekontu-aldaketak onartzea.*
1. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioan, 98.840.000 euroko kreditu gehigarri bat ematen da, 19.02.000X.420.02 aurrekontu-aplikazioan («Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpena, Pentsioei buruzko abenduaren 20ko 26/1990 Legeak ezarritako kotizazio gabeko prestazioak finantzatzeko, baita aurreko ekitaldietako betebeharrak erantzuteko ere»).
2. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioan, 272.135.370 euroko kreditu gehigarri bat ematen da, 19.02.000X.420.03 aurrekontu-aplikazioan («Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpena, abenduaren 20ko 26/1990 Legeak eta Familia-babesari buruzko azaroaren 15eko 35/2007 Legeak ezarritako kotizazio gabeko prestazioak finantzatzeko, baita aurreko ekitaldietako betebeharrak erantzuteko ere»).
3. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioan, 14.002.593.690 euroko aparteko kreditu bat ematen da, 19.02.000X.429.06 aurrekontu-aplikazioan («Gizarte Segurantzaren kontuetan COVID-19ak izandako eragina orekatzeko transferentzia»).
4. Aldaketa horiek Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua arabera finantzatzeko dira.
11. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarentzako mailegua.*
1. Gizarte Segurantzaren betebeharrak egoki bete ahal izateko eta hark finantza-oreka lortu ahal izateko, 16.500.000.000 euroko mailegu bat ematen zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari. Mailegu horrek ez du interesik sortuko, eta gehienez ere hamar urteko epean kitatuko da, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Mailegu hori

ordaintzeko egutegia Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak adostuko dute.

2. Mailegu hori finantzatzeko, zenbateko horretako kreditu-gehigarri bat baimentzen da atal honen aurrekontuan: 19. atala («Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa»), 02 zerbitzua («Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritza»), 291M programa («Gizarte Segurantzaren eta Gizarte Babesaren Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak»), 8. kapitulua («Finantza-aktiboak»), 82. artikulua («Sektore publikoari maileguak ematea»), 822. kontzeptua («Gizarte Segurantzari finantza-orekarako maileguak ematea»).

3. Aldaketa hori Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikulua araberan finantzatzeko da.

12. artikulua. *Ekitaldiko urteko kontuak formulatzeko eta onartzeko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan xedatutakora egokitzen diren zergadunek sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztea (COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua).*

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek Sozietateen azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 124. artikulua 1. apartatuan aurreikusten den epean aurkeztuko dute ekitaldiari dagokion zergaldiko zergaren aitorpena, baldin eta ekitaldiko urteko kontuak formulatzeko eta onartzeko epea bat badator COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan xedatutakoarekin.

Azken epe hori amaitzean dagokion organoak ez baditu onartu urteko kontuak, aitorpena eskura dauden urteko kontuekin egingo da.

Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira eskura dauden urteko kontutzat:

a) Sozietate anonimo kotizatuen kasuan, aipatutako 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 41. artikulua 1. apartatuaren a) letran aipatzen diren urteko kontu ikuskatuak.

b) Gainerako zergadunentzat, ikuskatutako urteko kontuak edo, halakorik ezean, dagokion organoak formulatutako urteko kontuak, edo, azken horiek izan ezean, eskuragarri dagoen kontabilitatea, Merkataritza Kodean edo haiek dituzten arauetan aurreikusitakoaren arabera eramana.

2. Dagokion organoak onartutako urteko kontuen arabera egin behar den zergaren autoliquidazioa ez badator bat aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera aurkeztutakoarekin, zergadunek beste autoliquidazio bat aurkeztuko dute, 2020ko azaroaren 30era arteko epearekin.

a) Autoliquidazio berria osagarritzat hartuko da Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 122. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baldin eta sartu beharreko zenbatekoa handiagoa bada edo itzuli beharreko zenbatekoa txikiagoa bada aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera egindako aurreko autoliquidaziotik eratorritakoa baino.

Sartu beharreko zenbateko horrek berandutze-interesak sortuko ditu, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 124. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, eta ez zaio aplikatuko Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 27. artikuluan xedatutakoa.

b) Aurreko letran jasota ez dauden kasuetan, autoliquidazio berriak aurkezten denetik izango ditu ondorioak, eta ezin izango da aplikatu Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 120. artikulua 3. apartatuan eta Tributuei buruzko kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuei aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jardunen eta prozeduren Erregelamendu Orokorren 126. artikulua eta hurrengoetan xedatutakoa, eta ezin izango da mugatu lehenengo autoliquidazioa eta berria egiaztatzeko Administrazioak

duen ahalmena (erregelamendu orokor hori uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, autolikidazio berriari ez zaizkio aplikatuko Tributuari buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 119. artikulua 3. apartatuan aipatzen diren aukerak zuzentzeko mugak.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuzetik eratorritako kopuruak itzuli behar izanez gero, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 127. artikulua aplikatuko da. Kasu horretan, sei hilabeteko epea aurreko apartatuan autolikidazio berria aurkezteko ezarritako epea amaitzen denean hasiko da.

Aurrekoa gorabehera, aurreko apartatuko b) letran aipatzen den zuzenketak zenbateko bat itzuli beharra baldin badakar aurreko autolikidazioan egindako diru-sarrera efektibo baten ondorioz, berandutze-interesak sortuko dira zenbateko horren gainean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 124. artikulua 1. apartatuan aipatzen den borondatezko aitorten-epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatekoa ordaintzea agintzen den egunera arte.

4. Artikulu honetan aipatzen diren autolikidazioak, zergapekoek aurkeztutakoak, Administrazioak egiaztatu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, dagokion likidazioa egingo du. Zehazki, artikulu honetako 2. apartatuko b) letrak aipatzen dituen zuzenketek ez dute inolako ondorio preklusiborik izango.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Estatuaren Administrazio Orokorren gastu-muga.*

Barne Ministerioaren, Polizia Nazionalaren sindikatuen eta Guardia Zibilaren elkarte profesionalen arteko 2018ko martxoaren 12ko Akordioa aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak salbuetsita daude Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onartzen dituen urtarrilaren 2ko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikuluan ezarritako gastu-mugatik.

Bigarren xedapen gehigarria. *Hirugarren herrialdeetako nazionalitatea duten eta apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretua oinarri hartuta nekazaritza-sektorean egoera erregularrean kontratatu dituzten 18 eta 21 urte bitarteko gazteei errege lege-dekretuaren indarraldia amaitzen denean aplikatzekoa den araubidea (13/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 7koa, nekazaritza-enpleguaren alorrean presako zenbait neurri ezartzen dituen).*

1. Apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren indarraldia amaitu ondoren (horren bidez, nekazaritzako enpleguaren alorrean presako zenbait neurri hartzen dira), bizileku- eta lan-baimen bat emango zaie errege lege-dekretu hori indarrean egon den bitartean nekazaritza-sektorean 2.1.d) artikuluan oinarrituta kontratatu dituzten gazte atzerritarrei.

2. Baimena atzerritarrek berak eskatuko du, ordezkartza bidez edo horretarako gaitutako bitarteko telematikoen bidez, eta honako baldintza hauek egiaztatu beharko ditu:

a) Apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren 2.1.d) artikuluan oinarrituta nekazaritza-sektorean jarduera jarraitu baterako kontratatu izana eta jarduera horretan atzera egin ez izana.

b) Zigor-aurrekaririk ez izatea.

3. Eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izango da, apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretuaren indarraldia amaitzen denetik hasita, eta atzerritarrek bizi den probintzian eskatu beharko du, Gobernuak duen ordezkartzan edo ordezkariordetzan. Ebazpena emateko epea, gehienez, hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, baimena administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela iritziko zaio.

4. Baimen horrek bi urteko indarraldia izango du, eta beste bi urterako berri ahal izango da. Lurralde nazional osoan izango du balioa, inolako okupazio edo jardueratarata mugatu gabe, eta enpleguaren egoera nazionala aplikatu gabe.

5. Baimena ematen zaiola jakinarazten denetik hilabete igaro baino lehen, atzerritarren nortasun-txartela eskatu beharko du.

6. Baimena ematen zaio Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioan arlo honetan eskumena duen organoari neurri hori betearazteko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eta garapen-jarraibideak emateko.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 95 bis artikuluan aurreikusitako epea luzatzea.*

Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 95 bis artikulua aipatzen duen argitalpena, bertan agertzeko eskatzen diren baldintzak 2019ko abenduaren 31n betetzen dituztenak biltzen dituena, 2020ko urriaren 1a baino lehen egingo da betiere.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Esparru-akordio sektorial bati atxikitako luzapenak, arau hau indarrean jarri aurretik izenpetuak.*

1. 6. artikuluan aurreikusitako esparru-akordio sektorial bati atxikita dauden eta zordunak eta haren finantza-entitateak errege lege-dekretu hau indarrean jarri aurretik sinatu dituzten hitzarmenezko luzapenek manu honetan xedatutakoa bete beharko dute.

2. Informazio sinplifikatua alde aurretik entregatzeko 7. artikuluko 6. apartatuan ezarritako betebeharra betetzat joko da aurreko apartatuan aipatutako luzapenetan, baldin eta finantza-entitateak:

a) luzapena sinatu aurretik honako hau eman badio zordunari: kontsumorako kredituari buruzko Europako informazio normalizatua, Kontsumorako Kreditu Kontratuei buruzko ekainaren 24ko 16/2011 Legearen II. eranskinean ageri dena, kontsumorako kredituen kasuan, edo martxoaren 15eko 5/2019 Legearen I. eranskinean jasotako Europako Informazio Normalizatuaren Fitxa (EINZ), 8. artikuluan aurreikusitako argitalpena egin aurretik, edo

b) 7. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitako informazio sinplifikatua ematen badio zordunari luzamendu-akordioa argitaratu aurretik, hamar eguneko epean luzatze-akordioan atzera egiteko duen eskubideari buruzko informazioarekin batera, eta zordunak eskubide hori baliatzen ez badu.

3. 1. apartatuan aipatzen diren luzamenduetan, kontratuei buruz martxoaren 15eko 5/2019 Legearen 7. artikuluan jasotako gardentasun-betebeharrak hilabete epean bete beharko dira, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.

Bigarren xedapen iragankorra. *Berandutze-interesak ez sortzeko epea luzatzea martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 14. artikuluko eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 52. artikuluko geroratzeetan (7/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituena, eta 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko).*

Martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 14. artikuluko 4. apartatuan eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 52. artikuluko 6. apartatuan egindako aldaketak, hurrenez hurren, errege lege-dekretu horiek indarrean jarri ondoren aurkeztu diren geroratze-eskaerei aplikatuko zaizkie (7/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituena, eta 11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19ari aurre egiteko).

Hirugarren xedapen iragankorra. *Osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan lan egiten duten langileek alarma-egoeran SARS-CoV2 birusaz kutsatzearen ondorioz*



*hartutako gaixotasunak lan-istripu batetik eratorritako kontingentzia profesionaltzat hartzearen ondorioak.*

9. artikuluan babestutako langileei alarma-egoeraren deklarazioak iraun bitartean emandako osasun-laguntzak, arau hau indarrean sartu arte kontingentzia arruntan ondoriotzat jo denak, kalifikazio horri eutsiko dio.

Hala ere, prestazioaren kontingentzia profesionala 9. artikuluan ezarritakoaren arabera onartu ondoren, kontingentzia profesionaltzat hartuko da alarma-egoeran SARS-CoV2 birusaz kutsatuta berriz erortzearen ondoriozko osasun-laguntza.

Laugarren xedapen iragankorra. *17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua babesean egin diren eta oraindik ebatzi gabe dauden edo ezezkoa eman zaien langabezia-prestazioen eskaerak (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira).*

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoaren babesean egindako langabezia-prestazioen eskaerak (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira), errege lege-dekretu hau indarrean jartzean ebatzteke badaude, beronek ezarritako arauen arabera ebatziko dira.

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzerako ezezkoa eman bazaie eskaerei, interesdunek berriro aurkeztu ahal izango dituzte, errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 16 ter artikulua bigarren apartatua eta 20. artikulua.

2. 2020ko ekainaren 1etik aurrera, indargabeturik geratzen da Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetako lehena. *Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bategina aldatzea, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.*

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginari, zeina irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, 29. zenbakia gehitzen zaio 45.I.B) artikuluan, honela:

«29. COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 13.3 artikuluan eta COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2 artikuluan aurreikusitako luzapenak formalizatzeako eskriturak eta COVID-19aren osasun-krisialdiaren ondorioz egindako esparru-akordio sektorialen babesean onartutako eta maiatzaren 26ko Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako hitzarmenezko luzamenduak formalizatzeako eskriturak.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Estatuko Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 26ko 3/2001 Legea aldatzea.*

Estatuko Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen 103.c) artikulua honela geratuko da idatzita:

«c) Debekatutako arrantza-produktuak edo arauzko tamaina edo pisua baino txikiagoa dutenak ukaitea, kontsignatzea, garraiatzea, igarotzea, biltegiatzea, eraldatzea, erakustea eta saltzea, legez aurreikusitako moduetako edozeinetan. Jokabide horiek molusku-espezieei eragiten badiete eta lonjan edo lehen salmentarako baimendutako edozein establezimendutan egiten badira, egun batean saldu den gutxieneko tamainako edo pisuko guztiak handiagoa izan beharko du, espezie horrentzat merkaturatutako bolumen osoaren % 10 baino. Ehuneko hori % 10 edo txikiagoa bada, eta nahi gabe harrapatu dela irizten bazaio, arau-haustea arintzat hartuko da, eta jeneroa ezin izango da merkaturatu.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearen ekainaren 18ko 11/2015 Legea aldatzea.*

Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiaraztearen ekainaren 18ko 11/2015 Legearen 55. artikulua 3. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

«a) Izendapenari dagokion aldia amaitzeagatik; kasu horretan, bere eginkizunak betetzen jarraituko du, harik eta ordezkoa izendatu arte.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Urriaren 2ko 877/2015 Errege Dekretua aldatzea, Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea garatzen duena: zenbait banku-fundaziok eratu beharreko erreserba-funtsa arautzen du errege-dekretu horrek; Kontu Auditoretzaren Legearen Testu Bategina –uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua– garatzeko Erregelamendua onartzen duen urriaren 31ko 1517/2011 Errege Dekretua aldatzen du, eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretua aldatzen du.*

Xedapen gehigarri bat gehitzen da, honela:

«Lehenengo xedapen gehigarria. *Erreserba-funtsera ekarpenak egiteko betebeharra etetea.*

COVID-19aren pandemiaren ondorio ekonomikoak direla eta, 2. artikuluan aipatzen diren banku-fundazioek ez dute betebeharririk izango erreserba-funtserako zuzkidurak egiteko 2020. urtean. Erreserba-funtsa eratzeko epea, 6. artikuluan aurreikusia, eten egingo da 2020. urte naturalean. 2020an ekarpena eten izana ez da konpentsatuko hurrengo urteko ekarpenarekin. Horrela, 4. artikulua arabera ezarritako zenbateko objektiboa lortu arte geratzen diren ekarpenak modu linealean banatuko dira denboran, 6. artikulua 3. apartatuaren arabera.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzea, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onartua.*

Beste apartatu bat gehitzen zaio, 11.a, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 33. artikuluari (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori). Hau da apartatu berriaren edukia:

«11. Funtsak espediente bat abiatuko du erreklamaturako soldadak eta kalte-ordainak erreklamatzeko bidezkoa den egiaztatze, betiere aurreko apartatuaren aurreikusitako mugak errespetatuz.

Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, organo eskudunak ebazpena emango du, eskabidea behar bezala aurkeztu denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean. Ebazpena ematen den egunetik hamar egun igaro baino lehen bidali beharko zaio jakinarazpena interesdunari.

Epe hori igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskatzaileak administrazio-isiltasunaren bidez baietsizat jo ahal izango du Funtsetan kargurako betebeharrak

aitortzeko eskaera, baina ezin izango da inolaz ere isiltasunez lortu lege onuradun izan ezin diren pertsonen aldeko betebeharren aitortpena, ez eta aurreko apartatueta aurreikusitako mugak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino handiagokoa den betebeharren aitortpena ere. Epea amaitu ondorengo ebazpen espresua ematekotan, betebeharraren aitortpena berretsi beharko da, legeko onuradun izan daitezkeen pertsonen alde, eta betiere aurreko apartatueta aurreikusitako mugen barruan. Nolanahi ere, isiltasunaren ziurtagiri bat eskatu ahal izango da, froga gisa, eta bertan jasoko dira aurreko apartatueta aurreikusitako mugen barruan aitortutzat jo behar diren Funtsaren kargurako betebeharrak.

Ebazpen horren aurka demanda jarri ahal izango da lan-arloko organo jurisdikzional eskudunean, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, egintza espresua bada; hala ez bada, aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera eskaera isiltasunez baietsi dela ulertu behar den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da epe hori.»

Azken xedapenetako seigarrena. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzea, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 324. artikulua 1. apartatuaren bigarren paragrafoa –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina–, eta honela geratuko da idatzita:

«Ulertuko da aurreko letran besteren konturako langileen kontratazioa dela-eta ezarritako mugak nekazaritza-ustiategi bakoitzeko aplikatuko direla. Nekazaritza-ustiategian bi titular edo gehiago badaude, guztiak ere Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileentzako Sistema Bereziko Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda, aurreko letran ezarritako langileen edo egunsarien kopuruari hileko oinarrien arabera kotizatzen duen beste langile bat gehituko zaio, edo urtean berrehun eta hirurogeita hamahiru egunsari, lanaldi errealean arabera kotizatzen duten langileen kasuan, nekazaritza-ustiategiaren titular bakoitzeko, lehenengoa kenduta.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 14. artikulua 4. apartatua honela geldituko da idatzita.

«4. Hauek izango dira geroratzeko baldintzak:

- a) Epea sei hilabetekoa izango da.
- b) Ez da berandutze-interesik sortuko geroratzearen lehenengo lau hilabeteetan.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena, honela aldatzen da.

Bat. Aldatu egiten da 17. artikulua 4. apartatua. Honela geldituko da idatzita:

«4. Jarduera etetearen ondoriozko aparteko prestazioak, artikulua honetan arautuak, hilabeteko iraupena izango du, eta, hala badagokio, alarma-egoera amaitzen den hilabeteko azken egunera arte luzatuko da, baldin eta alarma-egoera luzatzen bada eta hilabete baino gehiago irauten badu. Hori jasotzen igaro den denbora

kotizatutzat joko da, ez da kotizatzeko betebeharririk izango eta ez ditu laburtuko jarduera eteteagatik onuradunak etorkizunean jaso ditzakeen prestazioen aldiak.

Kotizatzeko betebeharririk ez duten kotizazioak Gizarte Segurantzaren aurrekontuen kargura izango dira gertakari arruntengatiko ekarpenen kasuan; mutua laguntzaileen edo, hala badagokio, dagokion entitate kudeatzailearen aurrekontuen kargura gertakari profesionalengatiko ekarpenen eta jarduera uztearen kasuan, eta dagozkion entitateen aurrekontuen kargura gainerako ekarpenen kasuan.»

Bi. Aldatu egiten da 24. artikulua 2. apartatua. Honela geldituko da idatzita:

«2. Salbuespen horrek ez dio ondoriorik ekarriko langileari; alegia, aldi hori benetan kotizatutakotzat hartuko da ondore guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 20. artikulua 1. apartatuan ezarrita dagoena.»

Hiru. Aldatu egiten da 40. artikulua 3. apartatua, eta honela geratuko da idatzita:

«2020ko ekainaren 1era arte etengo da ekitaldi soziala ixten denetik hiru hilabeteko epean urteko kontu arruntak edo laburtuak, banakakoak edo bateratuak formulatzeko pertsona juridikoen gobernu- edo administrazio-organoak duen betebeharra, baita, legez eska daitekeenean, kudeaketa-txostena eta sozietateen legeriaren arabera eska daitezkeen gainerako dokumentuak aurkezteko betebeharra ere, eta egun hartan hasiko da, berriro, betebeharririk betetzeko epea, beste hiru hilabeterako. Aurrekoa gorabehera, baliaduna izango da pertsona juridiko baten gobernu- edo administrazio-organoak alarma-egoeran egiten duen kontu-formulazioa, eta kontuon kontabilitate-egiaztapena ere legez aurreikusitako epean egin ahal izango du, edo hurrengo apartatuan aurreikusitako luzapenari helduta.»

Lau. Aldatu egiten da 40. artikulua 5. apartatua, eta honela geratuko da idatzita:

«5. Ohiko batzar orokorra, aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko, urteko kontuak formulatzeko epea amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan egingo da nahitaez.»

Bost. Zazpigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua honela idatzita geratuko da:

«3. Martxoaren 14ko 63/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera amaitzen denetik, urtebeterako, araubide berezi bat ezarriko da genetikoki eraldatutako organismoak nahita askatzeko eta konfinatuta erabiltzeko edozein jardueratarako; baina apirilaren 25eko 9/2003 Legeari jarraituz eskatu beharko da araubide berezia, eta jarduera izapidetzeko eskumena duen organoak iritzi behar dio osasunerako ondorioak –bereziki, COVID-19ak dakartzanak– izan ditzaketan agente infekziosoak, prozesuak edo egoerak eragozteko, borrokatzea edo gelditzea dela haren xedea, edo frogatu behar da xede horretarako baliagarria dela (apirilaren 25eko 9/2003 Legearen bidez, GEOak konfinatuta erabiltzeko, nahita askatzeko eta merkaturatzeko araubide juridikoa ezarri zen).

Halakoetan, Biosegurtasuneko Batzorde Nazionalak eskabidearen aldeko txostena idatzi baldin badu, eta urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera nahitaezkoa baldin bada jakinarazpena egitea eta informazio publikoa zabaltzea, bost egun natural izango dira jakinarazpen eta informazio publiko horietarako.

Epe hori amaituta, berehala bozkatuko dute Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ministerioarteko Kontseiluan.

Baimena emanaz gero, baimenaren titularrek arriskuen ebaluazioan aurreikusi diren baldintzak –jakinarazpenean eta Biosegurtasuneko Batzorde Nazionalaren aldeko txostenean jasotakoak– zorrotz betez garatuko dituzte jarduera horiek. Gainera, erabilerak konfinatuko jardueren kasuan, jarduera arrisku-maila horretarako

edo handiagorako aldez aurretik baimendutako instalazioetan bakarrik egingo da, apirilaren 25eko 9/2003 Legearen arabera.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 21.1 artikulua honela geratuko da idatzita:

«1. Neurriak ezartzen dira aldi baterako eten daitezten COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz eta 16. artikuluan zehaztutako moduan egoera ekonomiko ahulean dauden pertsona fisikoek kontratatatu duten, hipoteka-bermerik ez duen eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzean bizirik dagoen mailegu edo kreditu ororen ondoriozko kontratu-betebeharrak.

Nolanahi ere, finantza-errentamenduko kontratuak aurreko paragrafoan aipatzen den aldi baterako etetearen aplikazio-eremu objektiboaren barruan daudela pentsatuko da.»

Bi. Aldatu egiten da 48. artikulua 1. apartatua. Honela geldituko da idatzita:

«1. Estatuko sektore publikoko zuzenbide publikoko entitateak eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren mutualitateak 2019ko urteko kontuak araudian aurreikusten diren epeen arabera egiten eta ematen saiatuko dira. Hala ere, alarma-egoeraren deklarazioa dela-eta hori ezinezkoa bada eta kontu-emaileak hala erabaki eta jakinarazi badio Estatuko Administrazioako Kontu Hartzaitza Nagusiari, eten egingo dira aplikatu beharreko araudian aurreikusitako epeak, egoera hori deklaratzeko denetik aurrera, eta berriro hasiko da zenbatzen inguruabar hori desagertzen denean, edo alarma-egoeraren benetako iraupenaren pareko aldia beste luzatuko da aurreikusitako epea.»

Hiru. Honela idatzita geratuko da 52. artikulua 6. apartatua:

«6. Hauek izango dira geroratzeko baldintzak:

a) Sei hilabetekoa izango da epea, Batasuneko aduana-kodea ezartzen duen erregelamenduaren 108. artikulua arabera dagokion ordaintzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita (952/2013 [EB] Erregelamendua, 2013ko urriaren 9koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Batasuneko aduana-kodea ezartzen duena).

b) Ez da berandutze-interesik sortuko geroratzearen lehenengo lau hilabeteetan.»

Azken xedapenetako hamargarrena. *Apirilaren 7ko 13/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, zeinaz presako zenbait neurri hartzen baitira nekazaritzako enpleguaren alorrean.*

3. artikulua e) letraren hirugarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

«Bateraezina izango da jaiotzagatik eta adingabea zaintzeagatik Gizarte Segurantzak ematen duen prestazioarekin, baina, ama biologikoak erditu ondoren nahitaez hartu behar duen aldiari dagokionez izan ezik, nahitaezko aldia edo aldi horretatik geratzen den zatia errege lege-dekretu honetan aurreikusitako ordainsariak amaitu eta hurrengo egunetik baliatu ahal izango da.»



Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuaren hamabosgarren xedapen gehigarrian 5. apartatua gehitzen da, honela:

«5. Notarioak zordunari doan emango dio notario-tresnaren kopia simple bat, xedapen honen arabera legezko luzamenduaren akordioa alde bakarretik publiko egingo duena.»

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira.*

Aldatu egiten da maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira, eta aldaketak errege lege-dekretua indarrean jarri zenetik izango ditu ondorioak. Honela geratuko da idatzita:

Bat. Aldatu egiten dira 2. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuak, eta honela idatzita geratuko dira:

«1. COVID-19ak ekarritako osasun-krisialdiaren ondorioz, salbuespen gisa eta aldi baterako, 2020ko ekitaldirako, jendaurreko ikuskizunetan aritzen diren artistei langabezia-prestazio ekonomikoak jasotzeko ezohiko aukera aitortzen zaie, artikuluko honetan aurreikusitako baldintzetan.

Prestazioa jasotzeko eskubidea eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina–, berezitasun hauekin bete ere:

Ezin izango da eskatu alta emanda egotea edo horren pareko egoeran egotea.

Era berean, ezin izango da eskatu Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuta egotea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 249. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, ez prestazioa eskatzean, ez jasotzen den bitartean.

Prestazioa bateraezina izango da norberaren konturako edo besteren konturako jardueretatik datorren edozein sarrerarekin, eta beste edozein prestazio, gutxieneko errenta, gizarteratze-errenta, gizarte-soldata eta edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzekin.

2. Artikulu honen 3. apartatuaren arabera Gizarte Segurantzaren dagozkion alta-egunak egiaztatzen dituzten eta aurreko apartatuan aurreikusitako jardueran benetan zerbitzuak eman dituzten langileei legezko langabezia-egoeran daudela eta gutxieneko kotizazio-aldia betea dutela aitortuko zaie 2020ko ekitaldian, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, baldin eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 262. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ohiko langabeziagatiko kontribuzio-prestazioa jasotzen ari ez badira edo prestazio hori aukeratu ez badute.

3. Xedapen honetan aurreikusitako langabezia-prestazioaren iraupena jarduera horretan legezko langabezia-egoeraren aurreko urtean benetan alta emanda egondako egunen arabera:

Jarduera-egunak	Prestazio-aldia (egunetan)
20 eta 54 artean.	120
55etik aurrera.	180

Ondorio horietarako, legezko langabezia-egoeraren data 2020ko martxoaren 14koa izango da, egun horretan jarri baitzen indarrean 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaratzeko duena.»

Bi. 2. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, eta honela geratuko da idatzita:

«5. Aparteko prestazio hori jasotzeko eskubidea behin bakarrik aitortuko da. Hala ere, langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea aitortu ondoren, eten egingo da eskubidea titularrak bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen bitartean. Eskubide hori eteten bada, eten egingo da prestazioaren ordainketa, eta prestazioa jasotzeko geratzen den denboraz hasiko da berriro, behin lana amaituta.»

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien maiatzaren 12ko 18/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Bat. 1. artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela geratuko da idatzita:

«Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, enpresa eta entitate horiek uko egiten badiete aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei, edo espedienteak aldatzeagatik prestazioen ordainketa eten edo erregularizatu nahi badute, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuari alde aurretik jakinarazi behar diote zer aldatu den langabezia-babesa eskuratzeko hasierako eskaera kolektiboan jasotako datuei dagokienez.»

Bi. Aldatu egiten da 4. artikulua 4. apartatuaren lehen paragrafoa, eta honela geratuko da idatzita:

«Kuoten salbuespena kontrolatzeko, aski izango da egiaztatzea Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak langabezia-prestazioa onartu duela dagokion aldirako.»

Hiru. Aldatu egiten da 4. artikulua 5. apartatua. Honela geldituko da idatzita:

«5. Artikulu honetan azaldutako kotizazio-salbuespenek ez dute eraginik izango langileengan; alegia, salbuespena aplikatzen den aldia benetan kotizatutakotzat hartuko da ondorio guztietarako, eta ez da aplikatuko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 20. artikulua 1. apartatuan ezarrita dagoena.»

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Zenbait erregelamendu-xedapenen maila babestea.*

Eutsi egiten zaio urriaren 2ko 877/2015 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren erregelamendu-mailari (errege lege-dekretu honen azken xedapenetako laugarrenak aldatu egin du xedapen hori).

Azken xedapenetako hamabosgarrena. *Eskumen-tituluak.*

Xedapen hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikulua babesean ematen da, orokorrean, artikulua horrek jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena esleitzen baitio Estatuari.

1. eta 9. artikulua eta hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak, gainera, 149.1 artikuluko 7. eta 17. arauak babesten dituzte; arau horien bitartez, eskumen hauek esleitzen zaizkio Estatuari: lan-legeriaren alorreko eskumen eskusiboa (horrek ez du kentzen hura autonomia-erkidegoetako organoek betearaztea), eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legeriaren eta araubide ekonomikoaren alorreko eskumen eskusiboa (horrek ez du kentzen haren zerbitzuak autonomia-erkidegoek betearaztea).

4., 5., 10., 11. eta 12. artikulua, lehenengo eta hirugarren xedapen gehigarriak eta bigarren xedapen gehigarria, gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.1.14 artikulua babesten ditu; izan ere, artikulua horrek Ogasun Publikoari eta Estatuaren zorrari buruzko eskumena esleitzen dio Estatuari.

6., 7. eta 8. artikulua eta lehenengo xedapen iragankorra, gainera, 6., 8. eta 11. arauak Estatuari merkataritza-legeriaren, legeria zibilaren, kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarrien eta betiere erregistroak eta tresna publikoak antolatzeari buruzko arauen eta kontratu-betebeharren oinarrien gainean esleitzen dizkioten eskumenen arabera eman dira; horrek ez du kentzen autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, foralak edo bereziak kontserbatu, aldatu eta garatzea, baldin eta halakorik badago.

2. artikulua Espainiako Konstituzioaren 149.1.15 artikuluan xedatutakoak babesten du; artikulua horrek ikerketa zientifiko eta teknikoak sustatzeko eta koordinazio orokorra egiteko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari.

3. artikulua 149.1.21 artikuluekin bat etorritik eman da; artikulua horrek telekomunikazioen arloko eskumen eskusiboa esleitzen dio Estatuari.

Bigarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 2. arauak babesten du; horren arabera, Estatuari eskumen eskusiboa ematen zaio nazionalitatearen, immigrazioaren, emigrazioaren, atzerritartasunaren eta asilo-eskubidearen arloan.

Azken xedapenetako hamaseigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Baimena ematen zaie Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako ministroari, Gobernuko hirugarren lehendakariorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari, Justiziako ministroari, Ogasuneko ministroari, Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroari, Kultura eta Kiroleko ministroari, Zientzia eta Berrikuntzako ministroari, Kontsumoko ministroari eta Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioko ministroari errege lege-dekretu honetan aurreikusitakoa aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko bakoitzak bere esparruan.

Azken xedapenetako hamazazpigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko maiatzaren 26an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN